

# tti pi-ttapa

287. zenbakia • 2000ko urriaren 5a • XX. urtea

## 4 Erreportaia:

Eskualdeko alkateen eta Nafarroako Gobernuaren arteko bilera

Baztan, Bertizarana, Bortzi-riak eta Malerreka aldeko alkateak Nafarroako Gobernuarekin bildu ziren irailaren 18an Bertizen. Aitzinetik alkateak elkarekin egonak ziren eta eskualdeko premia nagusiak zehaztu zituzten: N-121-A errepidean, Bera eta Behobia arteko zatia moldatzea eta zaborrak Gongorara eramateko proiektua, aitzinetik Lesagako transferentzia zentruan banatu ondotik. Bertzelako gaiak ere aztertu ziren. ➔ 4-5



## 3 Elkarrizketa:

Mikel Bezunartea

Iratxe Kontsumitzaile Elkarteko arduraduna da Leitza eta Baztango bulegoetan. Hamabortzean behin joaten da bi herri hauetara eta «kontsumitzaileek informazioaren beharraz kontzientzia hartu dutela» uste du. Urteko lehen sei hilabetetan 110 kexa aztertu ditu Baztanen eta 65 Leitzaan.

## 6 Gaurkotasuneko gaia:

Osasun Zerbitzuen egoera eskualdean

Santiago Cervera Osasun kontseilariak Malerreka eta Bortzirietako eskualdetara egindako bisitararen ondotik, erabiltzaileek osasun zerbitzu ezberdinen funtzionamenduaz duten ikusmoldea jakin nahi izan dugu. Donamaria, Leitza eta Beran galdegin dugu herritarren iritzia.

# Arkupeak elkarteak Mariano Izeta omenduko du



Bere etxe ko atea eta bere gogoa euskaren eta euskal kulturaren aldeko ekimen guzietan zabalik izan ditu Mariano Izeta elizondarrak: idazlea, Nafarroako Bertsozale Elkarteko ohorezko lehendakaria, Xorroxin Irratiko berriemailea, Santiago eguneko mutildantzaren buru... eta bertze hainbat lanetan aritu da aunitz urtez, erlojudendako eguneroko lana alde batera utzi gabe. Lan hori guziaz eskertzeko omenaldi aunitz jaso ditu han eta hemen. Momentuz, azkena Arkupeak erretiratuen elkarteak prestatu dio Elizondon, Pilarika bezperan.

Goizeko 11etan meza emanen da, ondotik

Arkupeak erretiratuen elkarteak urriaren 11n omenduko du Elizondon herriko euskaltzalea

bertsolariak ariko dira kantuan eta bazkaldu aitzinetik omenaldia egingen zaio Marianori. Otordua Hostal Baztanen egingen dute, ez nolana hikoia gainera, eta bazkaldoan dantzaldia izanen da bertan.

AHOZKO TRADIZIOA JASOTZEKO

# BEKA DEIALDIA

¥ Bortzirietako euskararen ahozko tradizioari buruzko ikerlana egitea eta hura herritarren artean zabaltzeko urratsak proposatzea da beka deialdiaren helburua.

¥ Oinarriak Bortzirietako Euskara Mankomunidadean daude.  
Informazio gehiagorako deitu 948 634 125 telefonora.

¥ Eskakerak 2000ko azaroaren 15eko 15:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira helbide honetan:



BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNIDADEA  
Arantzako Herriko Etxea  
31790 ARANTZA

Arantzan, 2000ko urrian  
Lehendakariak

# ORDOKI

armairu enpotratuen  
erakusketa Bittirian

## ALTZARIAK

**Estilo ugariko mobleak**

Larunbat goiz eta arratsaldez irekia

### ERAKUSKETA

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

### SALTOKIA

Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: **948 637 780**

### LESAKA



### LOGELAK, EGONGELAK, TRESILLOAK, KUTXAK, BESULKIAK...



## DATUAK.....

❖ **Mikel Bezunartea Iratxe Kontsumitzaile Elkarteko arduraduna da.**

**Hamabostean behin etortzen da Baztan eta Leitzako bulego-etara, azkeneko bospasei urteetan.**

❖ **Urteko lehen sei hilabetetan 110 kexa aztertu ditu Baztanen eta 65 Leitzan.**

**Iruritan, bigarren eta laugarren asteartetan izaten da, 10etatik 1etara eta Leitzan bigarren eta laugarren ortzegunetan, ordutegi berean.**

❖ **Etxebizitzari lotutako aferak dira gehien aztertzen dituztenak (erosketa, errenta, komunitadeko arazoak...), baita komertzioa ere (garantiak, merkealdiak, itzulpenak...).**

TESTUA:

AITOR AROTZENA

ARGAZKIA:

JOSEBA AZPIROTZ

✍ Mikel BEZUNARTEA *Iratxe Kontsumitzaileen Elkartekoa*

## "Kontsumitzaileek informazioaren beharraz kontzientzia hartu dute"

ZEIN DA IRATXE KONTSUMITZAILE ELKARTEAREN LANA?


Gehienbat kontsumitzaileen kexak atenditzen ditugu. Normalean, zerbait gertatu ondok etortzen den jendea. Modu berean, gero eta informazio gehiago ematen dugu aitzinetik, jendea pixkanaka kontzientzia hartzen ari delako, edozer gauza erosi eta kontratatu baino lehen informazioa jasotzea behar duela. Alde horretatik arras kontent gaude. Inguruko komunikabideetan ere kolaborazioak egiten ditugu, ikastaroak, solasaldiak...

NOLA ORDAINTZEN DA ZERBITZU HAU?

Iratxe Kontsumitzaile elkartera hurbiltzen direnentzat dohaineko zerbitzua da, Udalek ordaintzen baitute. Dena den, Nafarroako Gobernuak dirulaguntza bat ematen die Udalei, erdia ordainduz.

BAZTAN ETA LEITZARA BAI, BAINA BORTZIRIAK ETA MALERREKARA EZ ZARETE AILEGATU ORAINDIK. ZERGATIK?

Aurten egin dugu proposamena Bidasoaldera hurbiltzeko. Bortziritako Mankomunitateak nahiko aitzindua zuen proiektua Etxalarrera eramateko eta baiezkoa eman zi-



«Pisua erosi behar duten gazteak informazio eske hurbiltzea pozgarria da».

gun, baina hondarrean, aurrekontu handi xamarra zela eta, ezetz erran digute eta heldu den urtean ikusiko dutela. Dena den, bada Bortziriak eta Malerrekako jende aunitz Baztango bulegora joaten dena.

ZEIN GAIEN INGURUAN AZALTZEN DITU JENDEAK KEXA GEHIEN?

Etxebizitzaren inguru-

ruko aferak dira gehien galdetzen direnak (erosketa, errentak, komunitadeko arazoak...), gero komertzioa (garantiak, merkealdiak, itzulpenak...), etxez etxeko zerbitzuak (iturginak, zurginak, pintoreak...), aseguruak... Baina, erosi edo kontratatzen den edozer gauza kontsumoa da, beraz, arlo guzietan bada kexa eta zalantzarik.

INGURU HAUETAKO KONTSUMITZAILEAK ONGI INFORMATUAK DAUDELA USTE DUZU?

Kontsumoa azken urteotan aunitz aldatu dela uste dut. Jendeak

ez daki ongi kontsumitzen, geroz eta gauza gehiago kontsumitzen dugulako. Jendeak informazioa behar du eta horretaz kontzientzia hartzen ari da. Baztanen pisua erosi behar duten gazteak informazio eske guregana hurbiltzen ikustea polita da nerezako. Kontsumoaren afera arras zabala da. Beti diruarekin kezkatzen gara, baina kontsumoarekin lotua dau- de ingurugiroa, gizarte harremanak... dirua bezain garrantzitsuak direnak. Alde horretatik kontzientziazio lan handia gelditzen zaigu.



## ALKATEAK ETA NAFARROAKO GOBERNUA

## N-121-A errepidearen eta zaborren aferari aterabidea bilatzeko bildu ziren

*Baztan, Bertizarana, Bortziriak eta Malerreka aldeko alkate gehienak Nafarroako Gobernuko lehendakari eta kontseilariekin bildu ziren Bertizko Jauregian irailaren 18an. Aitzinetik, alkateak elkarrekin egon ziren, eskualdeak dituen premia larrienen inguruan solastu eta eskariak bateratzeko. Lesaka eta Behobia artean N-121-A errepidearen moldaketa eta zaborrak Gongorako zabortegira eramateko egin beharreko lanen eta garraioaren finantziaketa izan ziren alkateek azaldutako kezka nagusiak. Udal agintari guziak baikor azaldu ziren bilera akautzerakoan, baina Mari Jose Larraioz Urrozko alkatesak erran zuen bezala, «orain emaitzak heldu diren ikusi beharko dugu».*

TESTUA: **AITOR AROTZENA**

**B**ilera garrantzitsua zen eta inguruko alkate gehienak bertan ziren: Bertizaranako Andres Etxenike eta Oieregiko kontzejuko lehendakaria, Jose Mari Galarregi; Urdazubiko Andres Diharasari; Malerrekatik, Urrozko Mari Jose Larraiotz Oizko Alberto San Miguel, Iturengo Jose Mari Gorosterrazu, Saldiasoko Pedro Urrutia, Sunbillako Jose Mari Hernandez, Doneztebeko Miguel San Miguel, Beintza-Labaiengo Javier Bertiz, Ezkurrako Martin Gastearena eta Elgo-

rriagako Jose Miguel Galarrégi; Bortzirietatik, Berako Josu Goia, Lesakako Jose Luis Etxegarai, Arantzako Jose Ramon Amoros eta Etxalarko Miguel Mari Irigoien eta Baztango Patxi Oartzabal.

Nafarroako Gobernuko ordezkartza ere zabala izan zen eta Miguel Sanz presidentearekin batera ia kontseilari guziak agertu ziren Bertizera (Rafael Gurrea lehendakariordea eta Gizarte Ongizateko Calixto Ayesa bakarrik falta ziren).

Eskualdeko errepideen egoera eta batez ere Bera eta Behobia arteko tartea N-121-A errepidean izan zen solasgai nagusietako bat. Nafarroako Go-

✎ ZABORRA GONGORARA

## Legasako zentruan banatu ondotik Iruñaldera eramane da

Baztan-Bidasoaldeko hiri-hondakinak edo zaborrak Gongorako zabortegira eramane direla segurtatu zuen Bertizko bileran Miguel San Miguel Doneztebeko alkateak. Horretarako, lehenik Legasan transferentzia zentrua egine da. Bertan hondakinak bortz zatitan banatuko dira: zaborra, tamaina handiko hondakinak, papera-kartoia, tetra-brik eta lata ontziak, eta pilak. Banatu ondotik, bilketaren egun berean Iruña aldera eramane nahi dira hondakinak. Doneztebeko alkateak aipatu digunez, «4.000 metro koadroko lur-eremua Aceraliari

erosiko diogu Legasan, metroa mila durotan. Dagoeneko aurreproiektua idatzia dago. Gero, proiektua idaztea gelditzen zaigu eta lanak Hirurteko Plangintzaren bitartez finantziaztea. 140 eta 150 milioi pezetaren arteko aurrekontua izanen du Legasako plantak». San Miguelek adierazitakoaren arabera, zaborra Iruñera eramatearen gastua finantziazteko modua aurkitzea falta da orain. Azkenik, Beintza-Labaienen (arrazkian) eta Baztanen zaborra errausteko labeak itxeko proiektua egitea ere eskatu zaio Nafarroako Gobernuari.



# Endarlatsa-Behobia tartearen moldaketa airean dago oraindik

Soka luzea duen afera da N-121-A errepidearen moldaketarena, batez ere Lesakatik Behobiara doan tartearena. Egia da, Miguel Sanz presidentek gogoratu zuen bezala, Belateko zuloak egin zituztenetik 14.000 milioi pezeta inbertitu direla errepide honetan, baina era berean begibistakoa da Bortzirietara ailegatzearan sortzen den botila-lepoa. Heldu den urtean, Bera-Endarlatsa arteko lau kilometroak egiteko asmoa du Nafarroako Gobernuak, baina aitzinetik Endarlatsa eta Behobia arteko zatia ere moldatuko dela segurtatu nahi du eta hori airean dago oraindik. «Bera eta Endarlatsako zatia egiteak ez du zentzurik, gero Behobia bitarte segidarik ez badu. Gainera, Nafarroan dagoen zatia da moldatzeko garestiena, gehiena harria baita» diote Nafarroako Gobernuko Herrilan Departamentutik. Jakina denez, Endarlatsa eta Behobia arteko errepide zati hori Gipuz-

koan egon arren, Nafarroako Gobernua-rena da eta hor sortzen da iskanbila. Gipuzkoako Diputazioak berea ez den errepiderik ez duela moldatuko dio. Nafarroako Gobernuak, lana erdibana egitea eskatzen du. Gainera, Nafarroako Gobernuaren ustez, kilometro bakoitzeko 800 milioi pezetako inbertsioa beharko den bitartean, gipuzkoarren ustez, kilometroko 200 milioi aski dira errepidea ongi uzteko. «Nafarroako proiektuan, errepidearen %73a hiru karrilekoa da eta gainerakoa, Behobiako Zaisa industrialde inguruan, lau karrilekoa. Gipuzkoarrena proiektu xumeagoa da» dio Jose Luis Etxegarai, Lesakako alkateak.

Kontuak kontu, 1997ko abenduaz geroztik ez dira bildu bi administrazioetako agintariak. Jose Luis Etxegarai Lesakako alkateak adierazi duenez, Antton Jaime, Gipuzkoako Diputazioko errepideetako arduradunak biltzeko goioa adie-



razi dio. Palacios, Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabideetako arduraduna ere biltzeko prest dago. Duela hiru urte bezalaxe, Bortzirietako alkatei zubi lana egitea egokituko zaie, bi administrazioen arteko harremanak hagitiz hotzak baitira. «Bilera hori lehenbailehen egitea probokatu behar dugu, ea denon artean behingoz soluzioa bilatzen diogun arazo larri honi» dio Etxegarai.

bernuak Bera-Endarlatsa tartea heldu den urtean moldatzeko asmoa du, baina aitzinetik Endarlatsa-Behobia zatiari zein aterabide eman behar zaion jakin nahi du.

Horretaz gain, eskualdeko zaborrak Iruñaldera eramanez direla baieztatu zen bileran. «Zaborra gauzez bilduko da, Legasako plantara eraman, banatu eta eguerdirako Gongoran izanen dira hondakinak» dio Miguel San Miguel Doneztebeko alkateak. Eskualdeko baserri aunitzek legalizatzeko eta, honenbertzez, Europako dirulaguntzak jasotzeko dituzten arazoak aztertu ziren.

Euskararen erabilera zuzena bide seinaletan

Jose Ramon Amoros, Bortzirietako Euskara Mankomunitadeko lehendakariak «eremu euskaldunean euskararen erabilera errespetatzea eta bide seinaletan dauden okerrak zuzentzea» eskatu zuen. Jose Miguel Galarregi Elgorriagako alkateak Bertizko Jauregiari erabilera gehiago ematea proposatu zuen. Lesakatik Oartzunerako errepidea moldatzeko eskaria ere egin zuen Jose Luis Etxegarai Lesakako alkateak. ■

## ☞ ABELTZAINEN DIRULAGUNTZAK

# Berrehun baserrik ez dute Europako subentzioa jasotzeko aukerarik

Abeltzain jarduera oraindik legalizatu gabe duten baserriarren egoera azaldu zuen Patxi Oartzabal Baztango alkateak. «Europako dirulaguntza jasotzeko, irekitze lizentzia edo jarduera lizentzia eskatzen diete, eta ez dute. Kasu horretan ez dute dirulaguntza eskatzeko aukerarik». Afera eskualde osoko baserrietan gertatzen da, baina larriagoa da Baztanen, bertan baitaude baserriak bizi diren gehienak. Izan ere, Oartzabalen erranetan, berrehunetik goiti dira egoera horretan dauden Baztango baserriak.

EHNE sindikatuko Bittoriano Jauregik erran digunez, legalizazioaren afera 1986ko abuztuan hasi zen, duela hamabortz urte. Orduan nahiko errexa zen lizentzia eskuratzea, baina jendeak ez zuen egin. Legalizatzeko arazo gehienak dituztenak, herri edo auzoen barrenean dauden baserriak dira. Hauek herriguneko etxeak kontsideratuak dira eta gorotzaren depositoa gunitik gutienez ehun metroa eraiki behar dituzte, lizentzia eskuratzeko. Herri edo auzoetatik aparte dauden baserrietan, biltegia etxe ondoan egiten ahal da.

Esne-behiak dituzten baserriak heldu den urteko abuztua bitarte legalak izanen dira. Gero, bi urteko epea izanen dute lizentzia eskuratzeko, baina horretarako milioi bat peze-

tako abala eskatzen diete. Horrek abeltzain aunitz gibelera bota ditu, diru hori ez itzultzeko arriskua ikusten baitute.

Baztango alkateak, afera moldatzeko Nafarroako Gobernuko Ingurugiro eta Nekazaritza eta Abeltzaintza departamentuetako ordezkariekin biltzeko asmoa azaldu du.



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 7.100 ALE

### Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
Herriko Etxeko Plaza, 1  
E-31780 BERA (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88  
Faxa: (+34) 948 63 12 91  
**Internet:**  
<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>  
**e-mail:**  
ttipi-ttapa@topagunea.com

**Jabea:** TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.  
**Presidentea:** Pello Apezetxea.  
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.  
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.  
**Publizitatea:** Kulturkari, S.L.  
**Administrazioa:** Amaia Goia.  
**Erredakzioa:** Aitor Arotzena, Asier Gogortza.  
**Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Aitor Arozena, Asier Gogortza.  
**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Belarra...  
**Inprimategia:** Gertu.  
**Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

### Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria ... 2.200 Pta.  
Ipar Euskal Herria ... 160 Libera  
Europa ... 4.000 Pta.  
Amerika ... 16.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNEN GAIA

### Osasun Zerbitzuen egoera eskualdean

Larrialdietarako telefonoa zahar askok dauka Leitza, lasaitasun handia ematen die



Amaia ALDUNTZIN  
Leitzako Gizarte Langilea

Hemengo Mankomunitatean Areso, Leitza, Goizueta eta Arano sar-tzen dira. Adineko jendearentzat honako zerbitzu hauek daude: etxez-etxe zerbitzua eta larrialdietarako telefonoa. Etxez-etxe zerbitzuan 6 langile gauden, 4 egun erdiz eta 2 egun osoz. Asmoa osasun zerbitzua deszentralizatzea da, zerbitzua etxera eramatea, adineko askok ez baitu etxetik mugitu nahi izaten. Larrialdietarako telefonoa Ongizate Institutuak jartzen du, hemen Leitza jende askok dauka eta oso ongi funtzionatzen du. Beraie lasaitasuna ematen die, badakitelako behartuz gero familiako norbait etorrriko dela, eta senideen artean inor lokalizatzen ez bada Osasun Etxetik norbait joan dela. Iruñeatik ere hilabetean behin deitzen diete ongi dauden galdetzeko, eta hori asko eskertzen dute. Horretaz gain, pertsona bat kontratatu behar duen gaixoarentzat dirulaguntzak gestionatzen ditugu. Zerbitzu hobetzekotan, langile bezala, jendearekin denbora gehiago egon ahal izatea eskatuko nuke, batzutan ordu erdi besterik ezin baikara egon, eta behar duen denbora ezin diegu eskaini.

Hagitx berde ikusten dut Bortzirietan ginekologia kontsulta jartzearen afera



Blanki ETXEBERRIA  
Uxua emakume taldea


Guk ginekologia kontsulta Bortzirietara ekartzea eskatzen dugu. Ahal bada zerbitzua hemen hartu nahi dugu, hilabetean behin bederen. Lehendik eskaera egina genuen, aditu behar zuenak aditu zuen, baina ez dugu erantzunik jaso. Orain Cervera kontseilaria egondu da eskualdean, eta ez du deus handirik erran gai honen inguruan. Bileran aipatu zuen ginekologia zerbitzua Elizondora ekarri zela, eta horrekin ixildu zen. Egia esan ni hagitz pessimista naiz, dudak eta beldur handia ditut. Urte hasieran eskatu genuen, eta orduan iduri zuen zerbaiteginen zutela. Hala ere uda pasatu da, oporrak izan dituzte eta ez da deus aitzindu. Ikusi beharko dugu zer argibide ateratzen den hortik. Hemen, gure aldetik, Osasun Kontseilua biltzeko gelditu ginen, urrian egingen da bilera, Bortzirietako herriak juntatu eta ia zerbaiteginen dugu. Hori da gure intentzioa, espero dut bertzeak ere ados gotea. Ez dugu eperik jarri nahi, oraindik arront berde ikusten dugu afera. Laguntza handia beharko dugu toki guzietatik, eta seguraski luze joko du. Hobe hala ez bada, baina hala iduri du.

Errabia ematen dit Doneztebera medikura joateko kotxe bila ibiltzeak



Consuelo LASAGA  
Donamaria

Donamarian ez dago medikuaren kontsultarik. Behartuz gero Doneztebera jautsi behar dugu, eta horretarako kotxea behar da. Nik, adibidez, ez dut kotxerik eta lagunarekin joan behar izaten dut aldiro. Orain hilabetean behin joatea tokatzen zait. Egia erran nahiko nuke beurek etortzea etxera, baina urgentzian bakarrik etortzen dira honat. Nere amatxirengana berriz etortzen dira enfermerak astean behin. Iruñeko medikua Donezteben hilabetean behin etortzen da. Orduan joan behar izaten dut beregana eta nola ez duten kotxerik errabia ematen dit bilatzen ibili beharrak. Donamariko jendearentzat molestia bat da Donezteberaino joatea, gainera normalean goizean goiz tokatzen zaigu kontsulta. Errehabilitazio kontuetarako ere Lesakaraino joan behar izaten dugu, edo gainerakoan Elizondora. Ginekologia ere gauza bera, Elizondon. Beraz, denetarako mugitu behar dugu herritik.



ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara  
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

### BURLATA:

ARTEKARI, S.L., ☎ 948133328•133346. Faxa: 948133713  
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- \\ Langile Autonomoak
- \\ Nekazariak eta mendi-langileak
- \\ Nominak eta Aseguro Sozialak
- \\ Lan-kontratatutako laguntzak
- \\ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- \\ Diru-laguntza ezberdinak
- \\ Kontabilitateak
- \\ IVA eta IRPF
- \\ Errenta aitopenak
- \\ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- \\ Bideragarritasun planak



## IRAKURLEAK MINTZO

Jon Abrili elkartasuna Abuztuaren 17an, Jon Abrili Entzutegi Nazionalaren aurrean irudi batzuk hartzeagatik ezarritako zigorra dela eta, ARKOko eta Goienako langile batzordeak honakoa adierazi nahi du:

1- Komunikabide bateko langile den Jon Abril kideari gure elkartasuna adierazi nahi diogu.

2- Jon Abrilen kasuak aurrerari bat sortzen duela iruditzen zaigu, hemendik aurrera lortutako informazioa argitaratu arte, kazetariok banda armatuaren kolaboratzailetzat hartuak izan gaitzkeelako beldurrez egongo garelako.

3- Euskal Herrian adierazpen askatasuna eta prentsa askatasunaren alde ere jarraituko dugula.

ARKOKO ETA GOIENAKO  
LANGILE BATZORDEAK



Jon Abrili elkartasuna Malerrekako Mankomunitateko Euskara Batzordeak Tipi-ttapako kazetari den Jon Abrili gertatutakoa salatu nahi du. Izan ere bere kazetari lana egiteagatik Entzutegi Nazionalak talde armatuari la-

guntza ematea leporatu dio. Egun baldintzapeko askatasunean dago bartz milioi pezetako bermea ordaindu ondotik. Honen aitzinean Joni elkartasuna adierazi nahi dio Malerrekako Mankomunitateko Euskara Batzordeak.

MALERREKAKO MANKOMUNITATEKO  
EUSKARA ZERBITZUA



Eneko Zestau eta Jon Abril Berako Euskara Batzordeko kideei elkartasun adierazpena Jakina denez, Eneko zestau eta Jon Abril Berako Euskara Batzordeko kideak dira eta, era berean, Jon Abril Olaetxea Aholkularitza Batzordeko kidea. Beren eginkizunak zintzoki bete dituzte biek eta lan eskergea egin dute euskararen normalizazioaren alde.

Eneko Zestau Espainiako Poliziak atxilotu zuen eta 3 egun inkomunikaturik egon ondotik Entzutegi Nazionalaren Epailearen aitzinean tortura eta tratatu txarrak salatu zituen. Harrezkero preso dago talde armatuari laguntza ematearen akusaziopean, eta frogari gehiago bilatu bitartean.

Jon Abril Olaetxea kazeta-

## OHARRA:

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, ttipi-ttapak bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*

riari Entzutegi Nazionalak talde armatuarekin kolaboratzea leporatu dio soilik bere lan informatiboa egiteagatik eta 5.000.000 pezetako fidantza ezarri. Ordaindu ondotik baldintzapeko askatasunean dago.

Honen bitartez Berako Euskara Batzordeko kideok Eneko Zestau eta Jon Abrilen errugabetasun-presuntzioa aldarrikatu eta Auzitegi Nazionalak hartutako erabakiak arbuia nahi ditugu. Horretaz gain, Eneko Zestauri eta Jon Abrili gure elkartasuna adierazi nahi diegu, bai zuzenki jakinaraziz eta bai prentsa bidez publiko eginez.

ARANTZAN,  
2000KO IRAILAREN 13AN  
BERAKO EUSKARA BATZORDEA



Lesakako Gazte Egunari buruz Urtero bezala, aurrean ere Lesakako Gazte Asanbladak Gazte Eguna antolatuko du, hau ekainaren 10ean ospatu zelarik.

Aurrean, betiko egitaraua jarraitu beharrean beste ukitu bat eman nahi izan zaio eta Herri Olinpiadak antolatuko ditugu.

Urteroko kontzertua alde batera uztea erabaki genuen bi arrazoi nagusirengatik. Bata, LAGaren ekintzak kontzertua antolatzea bakarrik mugatzen ez direlako, eta bestea, herriko gazteak elkartuko lituzkeen ekintza bat antolatu nahi izan dugulako. Bi helburuak bete ziren, eta nola bete: 100 gazte baino gehiago bildu ginen Iraingo frontoian, partehartze, elkartasun eta laguntasun giren ezinhobean.

Ezin ahaztu aurrean ere Jose Luis Etxegarai, gure "bihotzeko" alkateak eskeinitako "laguntza", izugarrizko saiakerak egin baitzituen 3000 biztanleko herri baten aurrekontutik dirua lortzeko, ekitaldi honi laguntza ematearren. Baina "gizajoak" ezin izan zuen pezetarik ere lortu, udalaren aurtengo diru guztia banatuta baitago. Besterik gabe, aurrean izan dugun arrakasta lekukotzat harturik, urte honetan zehar aurrera eramango ditugun ekintzetara gonbidatzen zaituztegu.

LAGA  
(LESAKAKO GAZTE ASANBLADA)



## TRATAMENDUA

Altzari eta zurarena orokorrean  
(Tarima rastrelak)

Bi aldiz hustu eta Proclav babeslea emanaz  
**Termita, pipi eta sitsak** kentzen ditu  
eta babesla ematen dio zurari.



## DEKAPATUAK

ZURA eta BURNITIK  
pintura eta barnizak kentzeko hare-zorrotada  
eta dekapanteak erabiltzen ditugu.

metro luze x metro zabal x metro erdi sakoneko komoda  
**8.000 pezeta (+BEZ)**

LESAKA Tratamendu Zentrua • ZUTABE • Otxango industrialdea 7 • Tel: 948 637579  
ELIZONDO • MALLENEA Dekorazioaren laguntzarekin • Braulio Iriarte 32 • Tel: 948 581848

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Ardatza 00ko irailak 22

«Suteen aurkako prebentzio neurriak hartzen ari gara. Bidasoaldean, adibidez, plantazioetan ura hartzeko puntuak jarri ditugu».

«Oihaneko suteen kontrako brigadarik ez dugu, baina hagitz interesgarria izanen litzateke. Bonberoei ematen zaien formazioa hirietako suteendako da eta hori hobetu beharko litzateke. Baina Nafarroan figura interesgarria dugu, bonbero boluntarioena Beran, Lesakan eta sortzeko puntuan

Goizuetan. Mendi inguruaz ezagutzen duen herriko jendea da, sua itzaltzeko hagitz garrantzitsua dena».

Manu **ARRASTIA**  
Foresna-Zurgaila erakundeko gerentea  
Ardatza 00-09-22

« Euskal Herria osoa biltzen zuen lehen erakundea zen Udalbiltza, euskaldun guztiak elkartzeko gai zen bakarra, eta horrekin dena errana dago».

Migel Mari **IRIGOIEN**  
Etxalarko alkatea  
GARA 00-09-29

- ◆ Neska ausarta «todotorreno» al zara?
- ◆ Ezta pentsatu ere, saltsera hutsa besterik ez.
- ◆ Nolatan «esatari» lanetan?
- ◆ Suertea izan dut eta lagun onak inguruan.
- ◆ Ikasle bizimodua edo lan mundua?
- ◆ Biak, baina azterketa garaian nahiago dut lana.
- ◆ Musikaria, abeslaria, dantzaria... eta zer gehiago?
- ◆ Gauza asko, eta fundamenduarekin ezer ere ez.
- ◆ Ahots ederra duzu, zaintzen al duzu?
- ◆ Beharko, parrandetan behintzat bai.
- ◆ Musika munduan profesionala izan nahi zinuke?
- ◆ Hori da nire ametsa. Baina nahiko urruti ikusten dut.
- ◆ Orain arte dohainak erakutsi ditugu, akatsak ere izango dituzu, ez da?
- ◆ Askok. Jenio bizi bizi, askotan pelma xamarra... ez nuke bukatuko.
- ◆ Zure irrifarra, alaitasuna... gaztetasuna al dira?
- ◆ Ez dakit ba. Ni oso ongi bizi naiz: lagun onak, familia ona... hori izango da.
- ◆ Kolorea, zenbakia eta jantzi bat?
- ◆ Beltza, 2 zenbakia, galtza bakeroak eta txandala.
- ◆ Ezinbesteko zerbait gaupasa egiteko?
- ◆ Musika (bakailoa ez dena) eta lagunak.
- ◆ Kirolak, zure bizimoduan tokirik ba al dauka?
- ◆ Ikustea asko gustatzen zait, baina jokatzeko oso txarra naiz.



Jaione **OLAZABAL**

Gaztea  
**ARESO**

**Lanchas**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 948630735

**PIKABEA** *pinturak*

Molinero drogerian galdetu

**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 948 630240 - 948 631495 • BERA

**Ostargi Optika**

**OPTIKO OPTOMETRISTA**

Ikasturte hasieran umeen begien errebisioak egitea komeni da.

**OSTARGI OPTIKAN zure zain gaude.**

Bidasoa karrika, 8 • BERA • ☎ 948 63 07 53

**PAGOLA**  
TXISTORRAREN IZENA

☎ 948 630 054  
Altzateko Plaza, 2  
**BERA**



## OSASUNA

# Bortziriak eta Malerrekako eskualdeak bisitatu zituen Cervera Osasun kontseilariak

Udal agintariek ginekologia eta errehabilitazio zerbitzuak ekartzea eskatu dute

TTIPI-TTAPA

Bortziriak eta Malerrekako Osasun Zentro eta kontsulten egoera orokorrean ona dela azpimarratu zuen Santiago Cervera Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak, bi zonalde hauetara egindako bisitan. Dena den, Lesakako Osasun Zentroa handitzea edo moldatzea aztertu beharreko gaia dela azpimarratu zuen kontseilariak «*gaur egun dituen instalazioak gordetzeko tiki xamarra gelditu baita*».



Istripuen ondorioz Bortziriak eta Malerrekako osasun zentroetan zaindutakoen kopurua Nafarroako banazbertzeakoaren gainetik dago. Artxiboa

GARBITASUN ARAZOAK  
KONTSULTA BATZUETAN

Bertze kontsulta batzuetan arazo larriak somatu dira, batez ere garbitasunari dagokionez. Igantzi eta Arantzan egun guttitan garbitzen dira kontsultak. Sunbilla hezetasun arazoak dituzte eta Eratsunen zola zurez egin dago, gisa horretako osasun zentroetarako gomendatzen diren garbiketara eta desinfekzio lanak oztapatuz. Hortaz, zola berdinu eta material ez po-

rotsuaz estali beharko litzateke. Dena den, Bortziriak eta Malerrekako kontsulta gehienetan badira hobetu daitezkeen alderdiak. Osasun kontseilariak emandako datuen arabera, Etxalar eta Berako kontsultek Bortzirietan eta Beintza-Labaien, Elgorriaga eta Urrozkoek Malerrekako badituzte kalitatezko instalazioak eta ez dute berehalako eskuhartzerik behar.

GINEKOLOGIA ETA  
ERREHABILITAZIO  
ZERBITZUAK

Alkateek, espezializatutako zerbitzuak inguru honetara ekartzaren premia azaldu zioten Osasun kontseilariari, batez ere ginekologia eta errehabilitazio zerbitzuak. Osasun langileen euskalduntzeari buruzko kezka ere azaldu zuten udal agintariek. Santiago Cerverak eskari hauek aztertuko zituela adierazi zuen.

Dena den, ginekologia zerbitzua eskualde hauetan ez badago ere, Baztanera hurbiltzea lortu dela azpimarratu zuen. Euskalduntzeari dagokionez, horretarako Nafarroan dagoen aurrekontua nahikoa dela erran zuen, «*baina lehentasuna eman beharko diogu eskualde honi, ez baitago mediku eta erizain euskaldunen premia berdina hemen eta Tuteran*».

Udaletxe, osasun lan-

gile eta elkarte ezberdinak biltzen dituen Osasun Kontseiluaren funtzionamendua Bortzirietan eta Malerrekako arras ezberdina dela baieztatu zuen Cerverak. «*Doneztebekoak hiruhilabetetik behin biltzen den bitartean, Lesakakoa 1995tik ez da bildu. Hori ez da ez ona ezta txarra ere, baina zergatik gertatzen den aztertu nahi dugu*». Inguru honetako eriak eta zaurituak Irungo Ospitalera eramaten badira ere, «*errepide eta tunel berriei esker, pixkanaka Iruña aldera bideratzea espero dugu*» zioen kontseilariak. Bertzeak bertze, horretarako jarri omen da egun osoko ambulanzia zerbitzua Lesakan, urteko 80 milioi pezeta-ko aurrekontuarekin. Orokorrean, osasun arloan Bortziriak eta Malerrekako datuak Nafarroako banazbertzeakoaren gisakoak badira ere, kontseilariarendako daturik kezkarriena errepide istripuen kopurua da, dexente handia baita.

**OKANE**  
HARATEGIA • URDAITEGIA  
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

**SAROB**  
okindegia   
SANDERS Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

**Alberto  
RETEGI  
abokatua**  
Altzate 17  
BERA  
☎ 948 630 763

**bortzirUDI**  
BERA  
Eztegara 26 behean Tel.- Faxa: 948 63 15 21

**ZALAIN**  
JATEETXEA  
Zalain Auzoa  
☎ 948631106  
BERA  
Boda eta banketeak ematen dira

# Herriko karrikak zolaberritzen ari da Herriko Etxea

## Aste honetan Illekueta eta Hegoalde karriketan hasiko dira lanak

### ASIER GOGORTZA

Egoera penagarrian zeuden karrika batzuk zolaberritu dira uda honetan; Iparralde eta Mugaldea, Agerra auzoa... baita zenbait baserritara joaki diren pistak ere.

Bertze zenbait tokitan, berriz, lanak egitekoak dira oraindik; Illekuetan eta Hegoalde karrikan, errate batera, aste honetan bertan hasiko dira, TEX enpresari eman baitzaio lanen ardua.

### SOS Angola

Behar-Bidasoa ONGa elikagaiak biltzeko kanpaina egiten ari da Beran, gero Afrikako Angola herrialdera igortzeko. Larunbata bitartean egonen dira arratsaldeko 4etatik 7etara, ahalik eta laguntza gehien biltzeko. Lekariak eta esne-hautsa bildu nahi dira kanpaina honen bidez, bainan horrez gain diruz lagundu nahi dutenentzat bi kontu dituzte, BBVAN eta Euskadiko Kutxan.

### Lurraren Eguna

Urriaren 29an ospatuko da aurten. Beren eskulanak jendearen aitzinean aurkeztu nahi dituzten artisauek lehen-



Pedro Eltzaurdia eta Margarita Pikabearen urrezko ezteiak

Bi beratar hauek urriaren 13an beteko dituzte 50 urte esposturik. Orain dela 50 udazken Lezon ezkondu ziren eta Beran bizi dira orduz geroztik. 5 seme-alaba eta 10 iloba dituzte. Urteurrena ospatzeko Lezon meza eginen dute eta ondotik bazkari bat Etxalarko Bentan. Zorionak!

bailehen jarri beharko dute antolatzaileekin harremanetan, 948 631 307 telefonorat deituz.

Bertzalde, urteroko Sagardo eta Gasna Lehiaketetan parte hartzeko, egunean berean goizeko 10ak baino lehen agertu beharko da Ricardo Baroja eskolako atarira.

### Zakur kakak

Gai honen inguruan Berako auzo desberdi-

netako bizilagunen arrenkurak aditu ondotik (Agerra, Bortzirriak, Dorrea, Burga, Iturlandeta...), alkateak bandoa ateratu du arazoa moldatzen saiatzeko. Agerienez, zakurrak mendira eraman beharrean auzoetako berdegunetara eramaten dituzte kaka egitera zakurren jabeek. Hori dela eta, jabeek zakur hoiak kakak biltzea eskatzen du alkateak bandoan.

### Irakurketa eta sorkuntza literario ikastaroa

Irakurri nahiz idazten trebatu nahi duten herritarrek aukera polita dute urritik abendura eginen den ikastaroan izena emanez gero. Hori bai, urriaren 7a baino lehen mugitu beharko da apuntatzeko, 948 630 781 telefonora deituz edo Kultur Etxean agertuz. Ikastaroan parte hartzeko 10.000 pezeta ordaindu beharko da. Partehartzaileak astero bi orduz bilduko dira mahaiaren inguruan Maripi Solbes eramailearekin. Lamixine Berako Antzerki Taldeak antolatu du ikastaroa.

### flash

- ❖ Margo erakusketa Lourdes Arretxea mexikarraren kua droak urriaren 6tik 22ra egonen dira Kultur Etxean. Arratsaldeko 6etatik 8etara ikusten ahalko dira egunero.
- ❖ Marrazketa eta pintura Asteazken arratsaldean margolaritza ikastaroa emanen du aurten ere Kika irakasle hondarribitarra. Informazio gehiago Ricardo Baroja eskolan.
- ❖ Eneko eta Xabi Fiskalak probarik aurkezten ez duela ikusita libre uzteko errekurtsoa jarri du abokatuak, bainan ukatu egin diote eskaera. Bertze hilabete inguru joanen da berriz eskaera egin ahal izan arte.



### Arkupeak Elkarteko mus txapelkunak

Antonio Telletxea eta Jose Mari Jorajuria berarrak nagusitu ziren joan den irailaren 6an Hondarribian egin zen Mus 2000 txapelketan. Jesus Mutuberria eta Patxiku Mitxelenaen kontra jokatu zuten finala, goiz guzian eskualde osoko bikoteen kontra lehiatu ondotik.

Arg.: Asier G.

**belardenda**  
Mediku naturista  
kontsulta  
Masajista  
Legia 1, behea • BERA • 948 630652

**ROMANO PINTURAK**  
Barnealdeko dekorazioa, pintura,  
papera, moketa eta sintasola.  
948 63 11 37 / 649 84 01 49 • BERA

948 631462  
Aitzate 1 • BERA  
**Xirgil**  
BERRI

# Bederatzigarren Argazki lehiaketa antolatu du Beti Gaztek

## Lanak azaroaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira

**AITOR AROTZENA**

Beti Gazte elkarteak bederatzigarren aldiz plantatu du argazki lehiaketa. Joan den urteko geldialdiaren ondotik, berriz ere gogoberrituak ekin diote lehiaketa honen antolaketari. Lanak azaroaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira Beti Gazte elkartearen egoitzan (Beheko Plaza, 9 - 31770 Lesaka), gisa honetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz. Argazkiak, txuri-beltzean nahiz koloretan aurkezten ahal dira, paperean egindakoak eta nahi diren neurrikoak baina beti 30 x 40 zentimetroko kartulina baten gainean paratuak. Egile bakoitzak hiru argazki aurkezten ahal ditu gehienez. Argazki erakusketa berriz, azaroaren 19tik 26ra irekiko da egoitzan.

4. Paleta goma txapelketa antolatu du Batzokik

Urriaren akabailan, Batzoki elkarteak, Nafarroako Rural Kutxa eta Lesakako Udalaren laguntzaz antolatutako lehenengo mailako paleta-goma txapelketa hasiko da. Izena emateko epea urriaren 11n akautuko da eta bikote



**1998ko argazki lehiaketan, Jose Mari Arrigain tolosarraren «Vapores» txuri-beltzeko argazkiak jaso zuen lehen saria.**

bakoitzak 4.000 pezeta ordaindu beharko du. Izena ematen duten 20 lehenbiziko bikoteek hartuko dute parte txapelketan.

Bortzna bikoteko lau talde sortuko dira eta talde bakoitzean ligaxka bat jokatu da, hurrengo fasera nor pasatuko den erabakitzeko. Talde bakoitzeko lehenengo bi bikoteek bigarren fasea jokatu dute. Final laurdenetik hasita, kanporaketa sis-

tema erabiliko da. Partiduak larunbat arratsaldetan eta igande goizetan jokatu dira. Izena emateko edo azalpen gehiago eskatzeko Batzoki elkartearen telefonoetara, 948 627522 edo 646244371 (Julian) edo bertzenaz frontoira deitu (948 627518, Begoña edo Kastro).

Masaje ikastaroa antolatu du Herri Eskolak

Lesakako Herri Es-

kolak Udalaren laguntzaz antolatutako masaje ikastaroan izena emateko epea urriaren 18a arte zabalik dago. Horretarako Izarra okindegira joan behar da lehenbailehen (gehienez hamabi lagun onartuko dira) eta 4.000 pezeta ordaindu. Joan den urtean bezala, Txomin Irazoki beratarraren izan da irakaslea. Klaseak urriaren 23an hasiko dira eta astelehen eta ortzegunetan emanen dira, arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara. Guzira bi orduko sei saio egingen dira.

Bi albinte lanposturako deialdia

Herriko Etxeak albinte izateko bi lanposturako deialdia egingen du. Aitzineko deialdian, hautagaiek 35 urte baino guttiago izan behar zuten, baina oraingoan kendu egin da baldintza hori. Jose Luis Etxegarai alkateak adierazi digunez, onartutako hautagaiek probak urte akabaila aldera egingen dituzte eta gero, urte erdi edo bederatzita hila beteko ikastaroa egin beharko dute hautatuek. Beraz, urtebete pasatuko da oraindik albintek karrikan ikusi baino lehen.

## ▼ flash

- ❖ Irazoki-Berruet futbol Peña Herriko gazte talde batek Mattin Irazoki eta Iñaki Berruet futbolariaren peña sortu nahi du. Irazoki lesakarra min hartua dago orain, baina Bigarren Mailako Eibar futbol taldeko jokalaria da. Iñaki Berruet, berriz, urte batzuetan Alavesen aritu ondotik, Villareal taldean ari da orain, Lehen Mailan. Sortzez Behobiakoa bada ere, ama Agortxeberrikoa du eta neskalaguna ere lesakarra duenez, lagun aunitz ditu Berruetek herrian. Haizegoa osatuan eman behar da izena, 1.000 pezeta utziz.
- ❖ CSI-Transformados lantegian 1997an lan istripu batean hildako Pedro Portu Cantador irundarraren emazteak 30 milioi pezeta eta gurasoek 2 milioiko kalteordaina jasoko dute. Espainiako Auzitegi Gorenak Nafarroako Auzientziak 1998ko urriaren emandako epaia baieztatu du. CSI-Transformados lantegiko zuzendaria eta segurtasun arduradunak «axolagabekeriaz» jokatu zutela dio epaiak eta lanpostu horretarako hartutako segurtasun neurriak ez zirela nahikoak.

**KATTU**  
ostatu - jatetxea  
Plater konbinatuak eta menuak  
☎ 948627573 • LESAKA

Lurrindenda  
Marian  
endiberrri  
Estetika  
Beheko Plaza 8 ☎ 948637791 • LESAKA

ANITA  
jantaridenda  
Bittiria 41 ☎ 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA  
JATETXEA  
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE  
ERRETEGIA  
Tfnoa: 948 637 127  
LESAKA



ETXALAR

# Urria kultur ekitaldiz gainezka heldu zaigu

Usategietako igandea 15ean izanen da eta kultur egunak 6tik 14ra

JOSEBA ETA NEREA

Urtero bezala, urriaren hirugarren igandean ospatuko da Usategietako igandea. Goizeko ekitaldirik prestatu ez badago ere, usategiak bisitatzeko aukera izanen du edozeinek. Arratsaldez berriz, 5etan Baztango dantza taldeak ordu beteko saioa eskainiko du. 6'30etan dantzaldia hasiko da Alaitz eta Mainer taldearen eskutik. 10ak arte jotzen egonden talde honen atsedendian eginen da urteroko zozketa. Ohitura den bezala, sari nagusia 12 usokoa izanen da. Bigarren, hirugarren eta laugarren sariak herriko bestetan egindako egurrezko lanak izanen dira; abuztuaren 17an

motozerra erakustaldian egindako orgatxoak, lorontzia eta bi aulki jasoko dituzten irabazleek. Egunean zehar lortutako dirua joan den urtean TTIPI-TTAPA TELEBISTARENTZAT izan bazen ere, aurten Etxalar-ko Andra Mari dantza taldeari eskainiko zaio.

Usategietako larunbateko afaria

Badira bi urte usategietako larunbatean kontzerturik egiten ez dela. Kendu zenez geroztik ez zen deus ere izaten. Horri soluzio bat emateko, aurten bertze gauzen artean, afari bat eginen da. Gazteek antolatu dute eta edozeinek du joateko aukera. Horretarako Elutsa edo Herriko Ostatuan izena eman beharko da urriak



## Jubilatuak Arnedon

Buruilaren 18an bidaia egin zuten Larraburuko 50 kidek. Goizeko 8etan hartu zuten autobusa eta Arnedorako bidean dagoen ostatu batean gelditu ziren gosaltzera. Arnedon zapata erakusketa ikusi zuten, erosteko aukera ere izan zuten. Ez zen hau Arnedon egin zuten gauza bakarra: herria ezagutzeaz gain azoka ere ikusi zuten. Azagran bazkaldu ondotik Pitillaseko bodega batera joan ziren, ardoa eta olioak erostera. Etxerako bidean, Oliten egin zuten geldialdia gaztelua eta herria bisitatzeko.

Arg.: Joseba Olagarai

11 baino lehen, 1.000 pezeta utziz.

## Kultur egunak

Euskara Batzordeak urtero antolatzen duen ziklo kultural hau urriaren 6an hasiko da. 5'30etan haurrentzako tailerra. 8etan berriz, Gasherbru- II espedizio kideek diapositiba emanaldia eskainiko dute. Biharamonean, urriaren 7an, arratsal-

deko 8etan "40 ordu" laburmetraia ikusi ahal izanen da. Ondoko ortziraletan 8etan gaur egungo janariari buruzko hitzaldia emanen dute Mikel Belzunarteak eta Mikel Petirenak. Akautzeko, larunbatean, 8etan Lesakako Mairu taldeak helduentzako antzerkia taularatuko du: "Trizikloa". Aipatutako ekitaldi guztiak eskola zaharretan burutuko di-

ra. Etxalartik gonbitea luzatzen dugu etorri nahi duten guzientzat.

## Okerrak zuzenduz

Azken alean agertutako usategietako sustatutako informazioa ez da guztiz zuzena. Bertan lortutako diru kopurua 8.028.164 pezetakoa dela erran genuen baina lortutakoa pixka bat guttiago da: 7.808.908 pezeta.

**HERRIKO OSTATUA**  
**Jatetxea**  
 948635290 ETXALAR

«USOA»  
 NEKAZARI KOOPERATIBA  
 Ganaduarentzat pentzurik egokiena  
 Tfnoa: 948635214  
 ETXALAR

Ortziraletan, 10etan  
 Mus Txapelketak  
**E E K L E**  
**st tu**  
 Tfnoa: 948630259 - BERA

**GOYA**  
 JOSTAILUAK  
 JANTZIAK  
 OPARIAK  
 ERREMINTAK  
 Altzate, 5 • 948630083 BERA

Pinturak eta barnizak  
**LESAKA**  
 686 805435  
 948 637556  
 Manuel Zamorano

**LEGARRA**  
 Legarrea, 9 • 948 637 030 • LESAKA  
 IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU  
 • Liburuak  
 • Papertegia  
 • Tabakoa  
 • Plastikazioak egiten ditugu  
 • FAX publikoa  
 • Enkuadernatzeak  
 • Inprenta lanak  
 Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira

**HARITZPE**  
 948635235  
 948635038  
 GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK  
 Eguneroko idekia. Asteazkenetan atsedean eguna.

IGANTZI

# XXI. Artzain Zakur lehiaketak eman zien hasiera beste

## Felix Irigoien eta Izar suertatu ziren irabazle

### OSKAR TXOPERENA

Besta bezpera egunean egokitu zaigu, hain juxtu, ale honetako berrien bidaltzea. Ondorioz, XXI. Artzain-zakur lehiaketan gertatutakoaren berri emanen dizuegu oraingoan, eta gaineko egunetakoa, halaberrez, hurrengorako utziko dugu.

Eguraldi motelarekin hasieran eta xirimiriarekin erditik aitzinera, jendetza polita bildu zen Meakaundin. Bederatzi zakur izan genituen urteroko lehian, Igantzin dagoeneko lagun zaharrak diren artzainenak. Lehen probatik nabarmendu ziren zakurren arteko aldeak. Batzuk lan borobilak egin zituzten bitartean bertze zenbaiten gabeziak agerian gelditu ziren segituan. Dena erranez gero, artaldearekin



Felix Irigoien eta Jai irabazleak.

zorte handirik izan ez zuenik ere izan zen. Kontua da bortz zakurrek gaingitu zutela lehendabizko proba: Bat (Xabier Urien), Jai (Jor-

ge Oteiza), Xarpa (Jose-txo Billabona), Mendi (Mikel Garaiar) eta Izar (Felix Irigoien). Bigarren proban, berriz, bi zakur nagusitu zitzaiz-



### Biltokiko afaria

Urte franko pasatu ditu pattal aldetik Biltoki Elkartek urtero bezpera egunean antolatzen duen afariak. Aurten berpiztu dela iduri du, 80 lagun inguru bildu baitira bertan afaltzera besteei hasiera emateko.

Arg.: Oskar Txoperena

kien bertzeei, artaldea hesi borobilean sartzea lortu baitzuten biek: Felix Irigoien eta Izar eta Jorge Oteizaren Jai. Azkenean, 9 puntuko alde murriztarekin irabazi zuen argazkian agerituen amaiurtarrak. Oroztarra izan genuen bigarren eta Xabier Urien bizkaitarra hirugarren.

### Abesbatzaren bidaia

Isabel Lakarrekin hasi zenetik hamar urte bete berriak direla ospatzeko bidaia egin zuten irailaren 23an abesba-

tzakoek Gipuzkoa aldera. Goiza Aian dagoen ola zaharra ikusten eman ondotik, Asteasu inguruko sagardotegi batean bazkaldu zuten.

### Ikastaroak

Urtero tenore honetan hasten diren ikastaroen antolatzaileek erran digutenez hurrengo egunetan paratuko dira kartelak eta deialdiak interesatua dagoen jendearentzat. Beraz, badakizue, adi egon ikastaro hauek gustokoak badituzue: eskulanak, gimnasia... etab.

948631076 • BERA

Makinaria eraikuntza  
Moldaketak eta despiezea  
Mantenimendu mekanikoa  
Torno, fresadorak, errekifikadorak

Igantzi Benta • 948 627572 • Faxa: 948 637508

Terraza eta plater konbinatuak

Hostala • Kafetegia  
Gelak TB eta bainuarekin

Plaza Berria, 13 • (948) 627547 LESAKA

LESAKA

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzi Benta • 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

KOXKILA  
OSTATUA

Zarandia, 4 - LESAKA

- Sukaldeko tresnak  
- Opariak  
- Pinturak

Albistur, 51 LESAKA  
948 63 75 58

➔ ARANTZA

# Angolarako janari-bilketa kanpaina egiten ari da Behar-Bidasoa erakundea

Igantzi-Arantzako idazkari lanposturako sei hautagai aurkeztu dira

ELIXABET ETA GARBIÑE

Joan den urtean egin zuten bezala, Behar-Bidasoa Gobernuz Kanpoko Erakundeak (ONG delakoa) Angolarako janari bilketaren kanpaina hasi berri du. Joan den urtean bezala, aurten ere kanpainaren helburua 100 Tona janari biltzea da. Janari hori guzia ontzi handi batzuetan bidaliko da itsasontziz. Kanpaina honetan laguntzeko, ilarrak, lentejak, garbanzuak edo arrosa eramaten ahal da Peilettikira, edo dirua ingresatu Nafarroako Kutxan edo Rural Kutxan Behar Bidasoak dituen kontuetan. Diru honekin esne hautsa erosiko da.

Iaz, janaria bildu bezala eraman zen Irunera, eta han egin zituzten paketeak, baina aurten hemen bertan egingen dira



Angolara janaria, arropa eta oinetakoak, botikak edo eskola materiala bidaltzeko kanpainari ekin dio Behar-Bidasoak.

Artxibokoa

paketeak. Horretan ere lagundu nahi duenak Peilettikira joan behar du. Janariaz gain, arropa eta oinetakoak, botikak, eskolako materiala eta bertzelako gaiak bidaliko dira.

Kanpaina hau urriaren 2tik 6ra zabalduko da eta egun horietan agertu behar du Peilettikira janaria uztera eta paketeak egiten laguntzera. Material horiek guziki azaroan bidali-

ko dira Lobitoko (Angola) portura.

Igantzi-Arantzako idazkari lanpostua

Isabel Akerretak, Igantziko eta Arantzako idazkariak, orain dela

bi urte lanpostua utzi zuenetik, Mari Jose Larraiotzek bete du postu hau. Udan postua betetzeko deialdia luzatu zuten bi Herriko Etxeek. Deialdiaren epea iraila hasieran akautu zen eta sei lagunek eman zuten izena. Zerrenda argitaratu eta bertze zenbait betebeharren ondotik egingen dira idazkari berria aukeratzeko probak.

Ehiztariak lanean hasiak dira

Urtaroak agintzen du eta urtero bezala, herriko ehiztariak hasiak dira zeruari begira eta mendia alderako bidea hartzen. Urriarora hemen dugu eta berekin batera, usazaleen besta. Hasiak dira lehendabiziko tiro hotsak aditzen. Orain, ikusi behar du zenbat uso ekartzen dituzten herrira denboraldi honetan.



**MARTIKO**  
**Gure baserrietako**  
**produktuak**

☎ 948 625016 • Fax 948 625036  
Alkaiaga Industrialdea • BERA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutkoz garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.  
**Termita eta Polillen kontrako tratamendua**

**BERA**  
948630155  
BERA

BEINTZAKO  
OSTATUA

☎ 948 450 012  
BEINTZA-LABAIEN

**ERROTAZAR**

Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA  
ZELAIA Harategia  
Agerra Auzoan

**Harri Zur**  
LENTZERIA

**Udazken eta**  
**negurako**  
**kolekzio**  
**berriak**

Parrokia 11 • DONEZTEBE  
Tfnoa: 948 45 01 12



☞ **SUNBILLA**

# Berrogei ikaslek hasi dute ikasturte berria eskolan

## Horietatik seirentzat lehendabiziko aldia da

**JAIONE ETA ALBA**

Ikasturtea hasia da Sunbillako eskolan. Aurten hau dexente hasi dira eskolan lehendabiziko aldiz, pasa diren urteetan izandako ikasle kopurua pixko bat handituz. Hauek dira eskolan hasi diren hiru urteko haurrak: Ana Petirena, Jon Aranbillet, Unai Bereau, Elvira Fuentes, Eneko Herrera eta Liher Lastiri. Guzira 40 ikasle daude aurten Sunbillako eskolan, 14 Haur Hezkuntzan eta 26 Lehen Hezkuntzan.

Igerilekua itxita, kanpina asteburuan bakarrik zabalik

Udaren amaierarekin udal igerilekua ere itxi zuten irailaren 15ean eta kanpina hemendik aitzinera asteburuetan bakarrik irekiko da.

Bai kanpinea, bai

ta igerilekuan ere jende ugari ibili da uda guzian. Gauza bera gertatu da herriko landa etxetan. Gainera, eguraldia ere lagun izandu da kasik uda osoan.

Udaletxeko lanak aitzinera

Sunbillako Herriko Etxe zaharra berritzeko lanak aitzinera doazi. Barneko egitura guziz bota eta kanpoko partak mantendu dituzte bakarrik. Dirudienez, lehenago sotoa eta bi pisu zituen eraikinari ganbara bat gehitu behar diote, bertan ekitaldi ezberdinak antolatu ahal izateko.

Kuartel zaharra bertan mantenduko da momentuz.

Medikuaren etxea enkantean salduko da urriaren 27an

Udalak medikuaren

etxea eta inguruan duen lur-eremu ttikia enkante bidez salduko du. Enkantea urriaren 27an arratsaldeko 7etan egingen da udal bulegoan. Haserako prezioa 29 milioi pezetakoa da eta hori betetzen ez bada, hutsen geldituko da enkantea. Enkantean parte hartzeko bi milioi terdiko fidantza sartu behar da Udalak Nafarroako Kutxan dagoen kontuan. Enkantearen bertze baldintzak udal bulegoan daude interesatuen esku.



Herriko Etxean ganbara ere egingen da.

☞ **DONEZTEBE**

Erreka mendi taldeak Itxusira joanda hasi du aurtengo denboraldia

**PATXI IRIARTE**

Erreka Mendi taldeak igande honetan hasi du 2000-2001 denbo-

raldia, Baztango Itxusiko harrietara egindako ateraldiarekin. Ateraldiak hamabortzean behin egingen dituzte, ho-

nela, bertze asteburua libre uzteko. Momentuz, Inmaculadaren zubia bitarteko egitaraua prestatu dute. Egun horietan, beti bezala, Piriñoetara ateraldia egingen dute. Aurten, hiru mila metroko bertze mendi bat iganen dute, Taillón izenekoa, Bujaruelo eta Gabarnie inguru horretan.

**Iberraketa Martzurria**  
**Haurrakoko errega**  
 0-14 urte  
 Pasaia, 100m. 6 - 100000m.  
**Negurako modelo berriak**

**ETXANDI TXOKO**  
**jatetxea**  
 Bazkari, afari eta gosariak  
 ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

  
**APARAN, S. A.**  
 BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133  
 948 451 541  
 Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

  
**MENGHINI**  
**AKORDEOIAK** Angel Manuel Belio  
 AKORDEOI eta TRIKITIXA-KLASEAK • MUSIKA LENGUAIA  
 Kirolaz gain, MUSIKA ere egin ezazu  
 DOMIÑENEA Etxea • San Andres Karrika, 40  
 NARBARTE • 943 - 61 50 55 • 657 772 633

➔ **MALERREKA**

# Joaldunen Eguna ospatu zen Iturenen

Kukubiltxok antzezlanak eskainiko du urriaren 15ean

**IBAN ISASI**

Irailaren 23an Joaldunen Eguna ospatu zen, duela 15 urtetik honat gertatu den bezala. Aurtengoan, bigarren urtez Ibintza kultur taldeak antolatu du. Joaldunak goizean goiz elkartu ziren Herriko Etxeko arkupetan. Ameztiarako bidea hartu zuten herriko trikitalariek batera, baserri baserri jotzen ibiltzeko. Ameztiarrek prestatutako gosaria dastatu ondotik herrira jautsi ziren. Lasaga eta Iturengo auzoetan ibili ondotik, aizkora apostua izan zen herriko plazan Esteban Saralegi, Maika Ariztegi eta Kristina Saralegiren eskutik. Gero, herri bazkaria izan zen Herriko Etxeko sabaian. 140 bat lagun elkartu ziren mahaiaren inguruan. Ondotik, Peñagarikano



**Saralegitarrak eta Maika Ariztegi lanean, Joaldunen Egunean.**

Argazkia: TTIPI-TTAPA TB

eta Lizasok bertsoak bota zituzten. Eguna akitzeko arratsalde eta gauz dantzaldia izan zen Herriko Etxeko arkupetan Ainara, Arkaitz eta Leireren eskutik.

Kukubiltxo urriaren 15ean plazan

Kukubiltxo taldeak «Txirrikis» antzezlanak eskainiko du urriaren 15an, arratsaldeko 5,30etatik aitzin herri-

ko plazan, Ibintza kultur taldeak antolatuta.

Eskola

Eskolak gela bat gehiago du hemendik aitzinera. Probisionalki bada ere, herriko eskolaren beharrei erantzunez, Udalak gela berria egokitu du ingeles klaseak emateko Herriko Etxean, beheko solairuan orain arte herriko ostatuaren biltegi zenan.

# Txitxiloko errekatik ura hartzeko lehen pausua eman du Gobernuak

Ituren, Elgorriaga, Doneztebe eta Sunbilla hornituko ditu

**TTIPI-TTAPA**

Jakina denez, Ituren, Elgorriaga, Doneztebe eta Sunbilla ura eramateko Txitxiloko errekatik hartzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak. Proiektu horrek ukitzen dituen lurren jabetza kentzeko Foru Dekretua onartu du Nafarroako Gobernuak, lau herri hauek urez hornitzeko «lan hauek garrantzi handikoak eta lehenbailehen egin beharrekoak direlako». Errekatik Aurtitzera kanala egingen da eta handik Iturengo ur-depositora bideratuko dira. Hortik Elgorriaga, Doneztebe eta trenabidean barna,

Sunbillara ailegatuko da Txitxiloko ur garbia.

Zubietako bizilagunek ez dute begi onez ikusi proiektu hau gauzatzeko modua, batez ere, erreka Zubietako lurretan egonik, ez baita beraien iritzia kontuan hartu. Txitxilo da eskualde honetan hobeikien mantentzen den inguruetako bat eta gizakiak ez du kasik ukitu ere egin, orain arte.

Itaunterietan, pan-karta batzuk jarri zituzten zubietarrek, beraien ezinegona adieraziz. Zubietako Udalak, bertze lau udalei biltzeko deialdia luzatu die bialdiz, baina Iturengo ordezkariak bakarrik eman dute baiezkia.

Zubietako Udalaren eta Nafarroako Gobernu ordezkarien artean bilera egin zen joan den astean eta nahiko gustora atera omen ziren zubietarrak.



**SOULE**

**Hileta artea**

Tel: 948 453444 • 629 659583  
**ARIZKUN**



**FUNERARIA ZERBITZUAK**

**Lesaka-Donztebe**



**MALDAERREKA, S.L.**

24 ordutako zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik  
edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 948637404 • LESAKA  
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE



**ZALDUBI**

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • ☎ 948 580 562 IRURITA



➔ BERTIZ

# Mikologiari buruzko kongresua antolatu du Onddoen Kofradiak

Urriaren 13tik 15era egingen dira Bertizko Jauregian

TTIPI-TTAPA

Elgorriagako Onddo eta Zizen Kofradiak antolatutako I. Mikologia Kongresua urriaren 13tik 15era egingen da Bertizko Jauregian. Ortziral arratsaldeko 5,30etan ongiatorria eta haserako ekitaldia eskainiko du Javier Taberna, Nafarroako Gobernuako Komertzio eta Turismo Zuzendari Nagusiak. Hortik igande eguerdira bitarte, onddo eta zizekin zerikusia duten solasaldi batzuk aditzeko aukera izanen da: «Onddoen balio ekologikoa», «Nafarroako onddo arruntak», «Onddo goxua eta onddo arriskutsuak», «Trufa, inguru eta kultura», «Onddo eta zizen prestatzea eta komertzializazioa» edo «Onddo eta zizen kontserbazioa» dira, bertzeak



Jose Migel Galarregi Elgorriagako alkatea, Nafarroako Onddo eta zizen kofradiaren sorrera egunean. Artxibokoa

bertze, gaian aditua den jendearen ahotik entzun ahal izanen diren solasaldiak. Hizlarien artean, Caius Apicius gastronomia kritikari ezaguna, Jesus Mari Astrain

Napardi elkarteko lehendakaria, Jose Carlos Irurtzun Biologian lizentziatua edo Jose Elizalde Medikuntzan lizentziatua izanen dira, bertzeak bertze.

Ortziral arratsaldean, Bertizko Jauregira bisita gidatua egingen da eta larunbat arratsaldean, Aizkolegi bisitatzeko autobus ekologikoa izanen da.

➔ OITZ

Bazkalekuak hobetzeko proiektua onartu da 12.400 metroko zerrakura egingen da

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamenduak Oizko herrilurretan belagiak hobetzeko proiektua onartu du. Proiektuaren aurrekontua 9.420.105 pezetakoa da eta Nafarroako Gobernuak %60a ordainduko du.

12.400 metroko zerrakura egingen da eta putzu bat egiteko 90 metroko pareta egingen da.

➔ ERATSUN

Herrilurren aprobetxamendua arautu du Udalak ordenantza bidez

Eratsungo Udalak herrilurrean dauden belagiak, iratzeak, etxerako su-egurra eta beste aprobetxamendu komunalak arautzeko ordenantza behin betikoz onartu du. Herrilurra ahalik eta hobekien aprobetxatzea da ordenantzaren helburua.



## Maderas GOMEN

- ➔ Era guzietako atekak, janbak eta regruesoak
- ➔ Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- ➔ Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- ➔ Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

## ANZABAL

A G E N T Z I A

- Zurich Aseguruak
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- Inmobiliaria
  - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- Gestoria
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tfnoa eta Faxe: 948 580804 - ELIZONDO



Bideo Profesional  
erreportaiak

Ezkontz  
erreportaiak

Tel: 948.599.055



➔ GOIZUETA

# Aukeran aukerako ikastaroak antolatu dira herrian

Euskaltegirako ere taldeak osatu nahian dabil Udal Euskara Zerbitzua

ESTEBAN AROTZENA

Azkeneko urte hauetan ez bezala, alfabetatze taldeak osatu litezke herrian aurten, horixe da behintzat Udaleko Euskara Zerbitzuaren asmoa. Dagoeneko hiruorrikoak banatu dira etxez etxe eta hurrengo pausoa interesatu guztiak bilera batera deitzea izanen da. Eskolako haurren gurasoei eginen zaie bereziki alfabetatzeko gonbidapena.

Aipatutako hau ez da zerrenda luze bateko adibide interesgarrienetako bat besterik. Gizarte Zerbitzuak, esate baterako, elikadurari buruzko hitzaldi ziklo bat antolatu du urriaren 20 eta 26rako eta azaroaren 2rako. Egunak hurbildu ahalean TTPI-TTAPAK emanen du gai



243 milioi pezetako aurrekontua onartu du Udalak 243 milioi pezetako aurrekontua onartu zuen udalbatzak 2000. urterako, irailaren 8an burututako osoko bilkuran. Artxibokoa

honi buruzko informazio zabalagoa.

Hainbat ikastaro antolatu dira

Dagoeneko erantzun zabalak izan duena (30 emakumek izena eman

omen dute) urritik abendura bitarte luzatuko den eskulan eta dekoraziorari buruzko ikastaroa da, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin Udalak antolatu duena, hain zuzen. Aipatzekoa da,

baita ere, Ane Zinkunegik gimnasia eta aerobic-a emanen duela iaz bezala. Grafitia eta sexologiari buruzko ikastaroak prestatzen ari dira Gaztetxeak eta Arantxa Loiarlek, joan

➔ ARANO

Tintapolo oihanberritzeko bi milioiko aurrekontua

Aranoko Udalak Tintapolo mendia garbiketa eta oihanberritzeari ekinen dio ondorengo hilabeteetan. Bi milioi pezetatik gorako aurrekontua prestatu du horretarako. Ia 8 Hektarekoa den inguru horretan, landaketa mistoa egingo da, hau da, insignis pinua eta bertako hainbat zuhaitz mota tartekatuko dira eremuan.

den urtean bezala, ingeles ikastaroa emanen du, adin eta maila guzientzat.

Gasa sartzeko berrehun kontratu sinatu dira

Gasifikazioaren inizatibak erantzun ezin hobeak jaso du, ia herri osoa igaro baita Udaltzetik irailaren 18tik 22rako astean, 200 kontratu sinatuz. Aurten hasiko omen dira lanak.

➔ ARESO

# Hitzaldi batzuk eman ditu Heldu Psikologo taldeak

Antonio Alustiza eta Jai txapeldunorde Oñatin

JUANA MARI SAIZAR

Oinarrizko Gizarte Zerbitzu Mankomunitateak eta Osasun Departamenduak oso-osorik ordainduta menopausia, sexualitatea eta erlajazio hitzaldiak eman ditu Heldu Psikologo taldeak. Aurrerago, beste hiru hitzaldi eman-

go dira: «Elikadura-dietista bat azalduko du eta «Anorexia eta bulimia» psikologo batzuek. Azaroaren 8, 16 eta 23an emango dira, arratsaldeko 2,30etan eskolako gimnasioan.

Musika ikastaroak Ikasturte hasierare-

kin batera, eskolaz kanpoko ekitaldiak antolatu nahi ditu Guraso Elkartek. Hizkuntz musikaletik hasita, nahi diren tresnak ikasteko aukera izanen da. Bestalde, lehengo urteko ekimenari jarraituz, Udalak ingeles klaseak antolatu ditu eta dirulaguntza emango du.



Menopausiari buruzko hitzaldiak jendearen interesa piztu zuen.

Antonio eta Jai txapeldunorde Oñatiko Euskal Herriko Artzain txakurtxa-


pelketan txapeldunorde suertatu dira Antonio Alustiza artzaina eta Jai bere txakurra. Zorionak!

# Manifestazio batean parte hartzeagatik isunak ailegatu zaizkie hamalau laguni

Gehienei pankarta eramatea leporatzen diete, pankartarik izan ez zen ekitaldian

**JOSEBA AZPIROZ**

Gobernuaren Ordezkaritzak –lehenengo Gobernu Zibila–, Guardia Zibilak aurkeztutako sakaketa baten ondorioz, hamalau pertsoneri isunak jarri dizkie manifestazio batean parte hartzeagatik. Manifestazioa, ekainaren 22an egin zen, presoen eskubideen aldeko martxa nazionala Leitza iritsi zenean. Martxak herriko hainbat partidu politiko, elkarte, sindikatu, eta abarren atxikimendua jaso zuen eta baita hainbat herritarrena ere. Gobernuaren Ordezkaritzan baimenik eskatu ezenez, antolatzaileek Udalari kalejira moduko bat egiteko baimena eskatu zioten eta baita eman ere. Baimen hau eta horrelakoak arautzen dituen Foru Legea, bertara etorri ziren guardia zibilei erakutsi zieten eta hauen agintariek esandako moduan egin zen martxa: aurretik dantzari, txistulari eta pilotariak eta atzetik jendea, binaka eta elkarren artean beraiek erabakitako distantzia utziz. Ibilbidea ere, beraiek aginduta aldatu egin zen. Hala eta guztiz ere, orain arte hamalau sakaketa ailegatu dira eta



**Presoen eskubideen aldeko martxaren ondorioz isuna jaso dute hamalau herritarrek.**

Artxibokoa

bertan diotenez isunak 50.001 eta milioi bat pezeta artekoak izanen dira. Hala ere, harrizkoa zera da, salatutako gehienei pankarta eramatea leporatzen diotela eta egun horretako ekitaldian ez zela pankartarik erabili. Edo Leitza ez zegoen pertsona bat ere salatu dutela. Edo, inorri karnetik eskatu ez eta denen izen-abizenak jakitea.

Zinema denboraldirako bolondres gehiago behar dira

Urrian hasiko den zinemako denboraldi berriari begira, programazio eta emanaldietaz arduratzen diren bolondresak jende gehiago-

ren laguntza eskatu dute. Zinema gustukoa baduzu eta iharduera ho-

netan parte hartu nahi baduzu eman izena Udaletxean.



**Zine emanaldietaz arduratzeko aurpegi berriak behar dira.**

Artxibokoa

Zabor bilketa selektiborako arauak argitaratu ditu Udalak

Udalak inprimaki bat argitaratu du non zabor bilketa selektiboa behar bezala egin ahal izateko arauak azaltzen diren. Behar bezalako erabilerari buruzko argibideak emateaz gain birtziklatzeak duen garrantziaz jabetu gaitzen da bere helburua. Bertan azaltzen denez Gongorako zabortegira asteko 16.826 kilo zabor bidaltzen ditugu Leitza. Urteko 80 tonna. Hauek bertan ezkutatatu beharko balira, arazo latza izanen genuke. Horregatik, sortzen ditugun zaborrak behar den lekura botatzeaz gain, (paper eta kartoia, zabor-ontzi urdinetara; beira edo kristala, iglu tankerako zabor-ontzi berdetara; gainerantzeko zaborrak, zabor-ontzi berdeetara; pilak dendetan entregatu; obretako hondakinak, Mandaxaien Labakira eramanean; trasteak, asteazkenetan atera), ahalik eta zabor gutxien sortu behar da. Nahiz eta baietz uste, askok bilketa selektiboa oraindik ez dute behar bezala eginen, beraz, saiatu gaitzen, denon mesederako baita.

**IKUSMENAREN BERRESKURATZEA**

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

**KONTSULTA ORDUTEGIA**  
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

**GIHARRE ARAZOAK**

- Bixkortzea
- Artritis, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

**MAGNETOTERAPIA NATUROPATIA**

☎ (943) 62 30 55  
San Marcial, 7-4 IRUN

**ONDORIOETATIK INDARTZEKO**

- Diabetia
- Asma
- Larru azaleko alergia
- Buruko mina
- Zizareak
- Oinen izerdia
- Prostata, etab...

**ttipi-ttapa internet**

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>  
E-mail: [ttapi-ttapa@topagunea.com](mailto:ttapi-ttapa@topagunea.com)

BAZTAN

# Gartzaingo Pilarika bestak urriaren 11tik 15era

Egun handian VII. Duatloi txapelketa jokatuko da

**Asteazkena, urriak 11  
Bezpera Egune**

**6etan** txupinazoa eta ezkil jotzea. Ttuntunek herriko itzulie egingen dute. **9etan** Baztan Zopak Fransenen. **1etan** dantzaldia Mikel SALABERRI-rekin.

**Ortzegune, urriak 12  
Pilarika egune**

**12etan** Meza Nagusia Ariztegiko ermitan. **1etan** hameketakoa. **5etan** Gartzaingo VII. Mendi Duatloi txapelketa, Gartzain Kirol taldeak antolatua eta Nafarroako txapelketarako baliagarria (5 km. lasterka, 15 km. mendi bizikletan eta azken bi kilometro terdiak, lasterka). Izen ematea, proba hasi baino ordu erdi lehenago arte egiten ahal da. Informazio gehiago 948 580813 telefonoan eta honako helbide elektronikokan: gartzain@teletel.es. Faborito nagusia Mixel Aginaga, iazko irabazlea izanen da. **7,30etan** **10etara** dantzaldia Mikel SALABERRI-rekin. **10etan** mutil-dantzak. **11etan** bertsolariak: Xebaxtian Lizaso eta Andoni Egaña. **12etatik 5etara** rock kontzertua.

**Ortzileria, urriak 13  
Herrikoen Egune**



**Aurten ere jokatuko da mus txapelketa Gartzaingo Pilarika besten barnean. Argazkian, Joxe Mari Ursuegi eta Luis Mari Oiaregi gartzaindarrak, Baztandarren Biltzarrak lehen aldiz antolatutako mus txapelketa irabazi ondotik, 1998an.**

Artxibokoa

**10etan** futbol partide: Bailegi - Dream Team-en aurka. **2etan** Zikiro jatea. (Txartelak Fransenen salgai, urriaren 8a arte). Dantzaldia Mikel SALABERRI-rekin. **10etan** mutil-dantzak. **12etan** dantzaldia Mikel SALABERRI-rekin.

**Larunbata, urriak 14  
Haurren Egune**

**10etan** mus txapelketa. **2etan** bazkaria izanen du Bailegi taldeak eta haurren bazkaria Fransene ostatuan. **4etaik 8etara** zezen mekanikoa eta haizezko gaztelua. **6etan** txokolata eta bomba japoniarak. **8etatik 10etara** dantzaldia Mikel SALABERRI-rekin. **10etan** Mutildantzak. **12etatik 5etara** dantzaldia

JALISKO BAND taldearekin.

**Igandea, urriak 15**

**12,30etan** Meza Nagusia herrikanpo dauden alde. **4etan** Quads lasterketa Akullegin. **8etatik 12etara** dantzaldia Mikel SALABERRI-rekin. **12etan** piroteknia ikuskizuna, Gaixoa Ni eta besten akabaila.

Elizondoko Jaime Urrutia karrikako dendariak aparkatzeko debekuaren kontra

Jaime Urrutia karrikako merkataria baztuz arrenkura azaldu dute Balleko Udalak trafikoa arautzeko hartutako erabakiek sortutako ondorioekin. Zehazki, Beltzunegi arropa dendak, Maite lenteriak, Perez mobledendak, Adela janaridendak eta Nafarpress liburudendak Udalar aurkeztutako idatzi batean adierazten dutenez, «Udalak arauak aldatu zituztenetik, sekula baino bisita gutiago dituzte». Arau hauek, Istikonea etxetik (Adela) Kuartelekozelaia (Martintxo) bitartean autoa uztea debekatzen dute, denda hauetako bezeroei aparkatzea galaraziz. Dendarien usitez, inguruan bertze aparkalekurik ez dagoenez, bezeroek nahiago dute autoa uzteko errextasun gehiago dituzten bertze lekuekara joan. Modu berean, dendariak uste dute karrika honetako trafikoa ez dela aparkatzea debekatzeko bezain handia. Hori dela eta, aldaketa hauek berriz aztertzea eta lehengo egoerara itzultzea eskatu dute dendariak. Udala, aztertzen ari da merkatarien eskaria.

**MENDI  
OSTATUA**  
Santiago 25 - ☎ 948 580313  
ELIZONDO

**JATETXEA**  
☎ 948 580101  
Santiago 1  
ELIZONDO  
**Galarza** >

**IPINGI** ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, ☎ 948 580939  
ELIZONDO  
**UDAZKENEKO ARROPAK**  
Galtzak, atorrak, trajeak, konjuntuak,  
kamisetak, blusak, oihalak...  
**ESKULANGINTZAKO  
MATERIALAK**

**BAZTAN FUNERARIA**  
**ORAIN TANATORIO ZERBITZUA**  
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA  
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK  
Menditurri, 1 • ELIZONDO • ☎ 948 580373 • 608 776176

**MENDIALDE  
Jatetxea**  
AMAIUR • ☎ 948453060



BAZTAN

# Mariano Izeta omenduko du Arkupeak erretiratuen elkarteak urriaren 11n

Bizi osoan egin duen lana eskertzeko Meza eta bazkaria izanen dira Elizondon

TTIPI-TTAPA

Arkupeak erretiratuen elkarteak omenaldia eskainiko dio urriaren 11n Mariano Izeta idazle elizondarrari. Mariano Izeta Elizalde 1915. urteko uztailaren 14an jaio zen eta bere 85 urtetan lan handia egin du euskararen eta euskal kulturaren alde. Euskaltzaindiako aholkularia da, bi nobelen idazlea eta «Baztango Hiztegia»ren egilea da. Nafarroako Bertsozale Elkarteak ohorezko lehendakaria da eta kazetaritzaren munduan ere bere bidea egin du Mariano Izetak, aunitz urtez Elizondo eta inguruko herrietako berriak lau haizetara hedatu baititu egunero Xorroxin Irratiaren bidez. Santiago eguneko mutildantzaren buru ere izan da urteetan, bere erlojundako lana alde batera utzi gabe.

Lan horren ondorioz hainbat omenaldi jaso ditu. «Baztango kontuak» bere azken idazlana argitaratu ondotik, Nafarroako Gobernuko



**Bizi osoan egindako lana eskertuko diote erretiratuek Pilarika bezperan Marianori.** Argazkia: Argia

Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren eta Baztango Udalaren omena jaso zuen eta, berrikiago Zarauzko Udalak ere bere lana eskertu zuen. TTIPI-TTAPA aldizkariak ere bere esker ona adierazi zion Mariano Izetari 1998an,

Baztan-Bidasoako Euskaltzaleen I. Topaketaren barnean.

Urriaren 11rako Arkupeak elkarteak antolatutako ospakizunak Elizondon egingen dira. 11etan Meza emanen da. Bertsolariak izanen dira eta ondoren ome-

naldia eskainiko zaio Marianori. 12,30etan, Hostal Baztan jatetxera gateko autobusak aterako dira Institututik eta Merkatu Plazatik.

Gisa honetako ekitaldietan ohikoa dutenez, ez dute nolana hiko menua izanen erretiratuek: etxeko pateak, marisko ensalada, haragi eta arrain paella, letxua eta tipul ensalada, umerri paleta labean patatekin, etxeko tarta izozkiarekin, txanpainna, ura, ardoa, kafea eta kopa. Bazkalondoan, arratsaldeko 4etatik 6,30etara dantzaldia izanen da eta gero autobusak abiatuko dira herri ezberdinetara.

flash

❖ Kultur dirulaguntzak Baztango Udalak dirulaguntza batzuk banatu ditu zenbait kultur ekitaldietarako. Baztango Dantzariak taldeak 500.000 pezetako dirulaguntza jaso du abuztuaren 4an eskainitako «Amaiurko gaztelua» antzeulanarengatik. Helduen alfabetatze eta euskalduntze kanpainarako 244.850 pezeta bideratuko dira eta Bideotekarako materiala erosteko 35.000 pezeta.

Erakusketa interesgarria Zigako Etxezuria eta Aldekotxeberria landetxetan

«Haran sorginduen udazkeneko magia» lelopean, Zigako Etxezuria eta Aldekotxeberria landetxetan erakusketa ikusgai izanen da asteburu honetan. Etxeak ikusteaz gain, Baztango hameka margolariren lanak, altzari zaharren erakusketa, Bertizko Partzuergoko informazioa eta artisau produktuen salmenta izanen dira. Urriaren 6ko eguerdian zabalduko da erakusketa. Sarrera dohainik izanen da, ortziralean arratsaldeko 2etatik aitzin eta larunbat eta arratsaldean goizeko 10etatik arratsaldeko 8etara.

**ARGIBEL OPTIKA**  
*Orain Donezteben ere*  
 ☎ 948 581 391  
 Santiago 62 - ELIZONDO  
 ☎ 948 450 345  
 Intzakardi 7 - DONEZTEBE

Aukera zabala  
 ➤ Anteojoak  
 ➤ Lentillak  
 ➤ Audi-fonoak  
 ➤ Errebitsioak

**B A Z T A N**  
**ALTZARIAK**  
 zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

**Carlos Garaikoetxea Etxenike**  
 abokatua  
 aseguru orokorrak  
 ☎ 948 581468  
 948 580433 (etxekoa)  
 Frantziarako etorb. 3  
 Ameztialde 3B-ELBETE

# Oihartzun eskasa izan dute herrian buruilaren 24ko bozkek

Boza eman dutenen artean, %38 euskal departamenduaren alde agertu da

ANA MARI ETA FRED

Joan den buruilaren 24ko bozkek aski oihartzun eskasa izan dute ipar Euskal Herri guzian bezala Saran ere. Alabainan, gure herria abstentzioa %79,66koa izan da. Bozkatu dutenen %37,65a Frantziako lehendakaritzaren iraupena 5 urtetarat murriztearen alde agertu da, %15,59ak proiektu horren kontra bozkatu duelarik.

Bertzalde, azpimarratzekoa da bozkatu duten saratarren %38,23ek Abertzaleen Batasuna alderdiak banatu euskararen ofizialtasunaren eta euskal departamenduaren aldeko txartel gorriak sartu dituztela hautestontzietan. Bakotzak bere ondorioak atera ditzala!

Terexa Telletxea saratarra atxilotua

Joan den buruilaren 16an Frantses polizia egin operazioan, Terexa Telletxea saratarra bere lantokian atxilotua izan da. Ustezko bi ETAkide aterpetzea le-



Teresa Telletxea eta bere familiari sustenguaren erakusteko elgarretaratzeak egin dira plazan.

poratzen diote, eta ondorioz Pariserat eramana izan da ikerketapean ezarria izateko.

Ondoko astean elgarretaratzeak egin dira plazan, frantses eta espaniol gobernuek euskal gatazkaren aitzinean duten jokamoldearen salatzeke, eta bide batez sustenguaren erakusteko Terexa eta bere familiari.

Sekulan norbaitek sustengua adierazi nahi balio, hona bere helbidea: *Teresa Pernaute*

*Telletchea -892566F-Maison d'arrêt des femmes - Allée des Tuys - 94261 Fresnes cedex.*

Bertzalde, aipatzekoa da asteartetan, gaueko 10,30etarik gauerdite arte, Pariseko Txalaparta Irratiari deituz, mezuak zuzenean helarazten ahal zaiotela Parisen diren euskal presoeri (Tfnoa: 0148592212).

Gaztetxe arteko futbol txapelketa arrakastatsua

Arrakasta handia bil-

du du Sarako Gaztetxeak joan den buruilaren 23an antolatu Gaztetxeen arteko futbol txapelketak. Denetara 8 talde lehiatu dira egun guzian: Baigura, Ainhua, Senpere, Itsasu, Ezpeleta eta Sara (hiru talde).

Arratsaldeko 5etako finala erabakia zen, eta arratsean jokatu da Sarako talde baten eta Baigurako taldearen artean. Baxe-nafartarrak 4 eta 2 nagusitu dira, partida borrokatu baten ondotik. Arratsean, ki-

rolariek (eta zaleek ere!), xarmanki afaltzeko manera izan dute, eta gaualdia berant bururatu da Ikara musika taldearen kontzertuarekin. Zorionak futbolari eta antolatzaile guzieri eta bertze aldi bat arte!

Salatari aldizkaria karrikaratu du Gaztetxeak

Jadanik aipatu dugu hemendik herriko Gaztetxea indar berritzen ari zela. Horren lekuko herriko besten kari atera diren tee-shirt edo kamiseta ederrak. Bai eta talde batek sortu «Salatari» aldizkariaren proiektua. Komunikazio tresna berri hori, saratarrek elkar hobeki ezagut dezaten egin da, eta deneri irekia da. Lehen alea frantsez eta euskaraz idatzia da, eta bertan gai ainitz aipatuak dira.

Beraz, zerbait errateko, salatzeke, eskatzeke, saltzeke edo bertze baldin baduzue, zailantzarik ez izan: zuen arkatzak har, ondoko «Salataria»ren egiteko!

**HERRIKULTURERO ELKARTEGIA**

**MAITAN ETA VÉRONIQUE**  
04310 SARNA • TEL. 09 59 84 39 19

**ttipi-ttapa internet**

<http://www.topagunea.com/ttiji-ttapa>  
E-mail: [ttiji-ttapa@topagunea.com](mailto:ttiji-ttapa@topagunea.com)

**SAIZONES UDENA, S. L.**

**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztuta  
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

**SAIOA**  
**ILEPAINDEGI**  
**MISTOA**  
**IBARDINen**

Benta Biok-en,  
Benta Mirentxuren  
ondoan

☎ 0034948630424

## EZKONTZAK

**Jean Michel Iratzoki** eta **Francine Arlas**, Sara eta Uztaritzekoa, buruila-  
ren 23an.  
**Xabier Mikel Uitz Salaberria** eta  
**Maria Isabel Sanchez Perez**, Goizueta  
eta Hernanikoa, irailaren 16an.  
**Jesus Mari Andueza Oskoz** eta **Itziar  
Azpiroz Gartzia**, Doneztebe eta  
Leitzakoa, Iturenen, irailaren 23an.  
**Francisco Juan Arraztoa Etxandi** eta  
**Rosa Maria Sarratea Etxeberria**, Iruña  
eta Arizkungoa, irailaren 9an.  
**Julian Arizaleta Etxenike** eta **Maria  
Belen Iturbide Lucas**, Lekaroz eta  
Erratzukoa, irailaren 16an.  
**Miguel Angel Adin Oteiza** eta **Ana  
Maria Bidegain Zubiri**, Irurita eta  
Arizkungoa, irailaren 16an.  
**Jose Luis Arrizurieta Bildarraz** eta  
**Izaskun Telletxea Zubieta**, Leitzakoa,  
irailaren 16an.  
**Andres Rodriguez Diaz** eta **Maria  
Gema Goienetxe Mutuberria**, Donez-  
tebekoak, irailaren 23an.  
**Jose Ignacio Larretxea Errandonea**  
eta **Alin Olaskoaga Altzuri**, Arantza  
eta Ziburukoa, irailaren 30ean.  
**Francisco Javier Oiaga Oñate** eta **Susa-  
na Concepción Urkia Plazaola**, Donos-  
tiakoak Donamarian, irailaren 2an.  
**Juan Miguel Mariezkurrena Deskarga**  
eta **Eva Maria Mutuberria Antsitzar**,  
Eratsun eta Donamariakoa, irailaren  
23an.

## JAIOTZAK

**Ioritz Zelaieta Ilarregi**, Oizkoa, irai-  
laren 9an.  
**Juncal Helene (?) Martiarena**,  
Sunbillakoa, abuztuaren ?  
(balio dute biek)  
**Beñat Mayordomo Almandoz**, Bera-  
koa, irailaren 12an.  
**Ion Mayordomo Sobrino**, Elizondokoa,  
irailaren 6an.  
**Aitor Sagastibelta Alduntzin**, Leitza-  
koa, irailaren 18an.  
**Naiara Arrieta Bergara**, Donamaria-  
koa, irailaren 5ean.

## HERIOTZAK

**Mari Guerendiain**, Sarakoa, buruila-  
ren 20an, 84 urte  
**Alfonso Oroz Goñi**, Berakoa, irailaren  
12an, 78 urte.  
**Martina Sukuntza Sansirena**, Elizon-  
don, irailaren 13an, 80 urte.  
**Jesus Ignacio Requejo Zabaleta**,  
Donezteben, irailaren 23an.  
**Maria Asuncion Ariztegi**, Etxalarkoa,  
irailaren 26an, 80 urte.

## EZKONTZAK

**Angel Mari Aizpiolea Beltran** eta  
**Diana Machado Gonzalez**, Irungoak  
Etxalarren, irailaren 16an.  
**Ricardo Area Rodriguez** eta **Mila  
Iguzkiagirre Zelaieta**, Errenteri eta  
Igantzikoa, irailaren 2an.  
**Matias Arriada Mendiberri** eta **Marta  
Irigoiñen Etxebeste**, Azpilkueta eta  
Igantzikoa, irailaren 16an.



### Josefa ETXEBERRIA ALTZUGARAI

Misiolari Karmeldarra

Bere biziaren 60 urte  
bertzeendako eman zituen.  
Ederki irabazitako zeruan goian bego!

**BIURGARAI BASERRIA**  
Bere etxeko senitartekoak

Lesaka, 1911-10-02  
Bartzelona, 2000-08-08



### Unai ZELAIETA MARTINEZ

ESKERTZA

Haren gurasoak: Jenaro eta Maria Luisa eta  
arrebak Iratzek, bere hiletara etorri zineten  
guziei, samin-agurra bidali zenutenei eta  
baita gure atsekabeen lagundu gaituzuenoi  
ere esker aunitz eman nahi dizuegu.

Bera, 2000-09-28



### Jose TELLETXE ESTRADA

1. URTEMUGA (99-X-11)

Ez zara erabat joan,  
gurekin segituko baitu beti  
zure barruaren islada izan den  
eta izanen den irribarre goxo eta atseginak.

**SENITARTEKOAK.**  
Lesaka, 2000ko Urria



# Berako Gure Txokoa water-polo taldea txapeldunorde Nafarroako Kirol Jokoetan

- Baztan-Bidasoa-Leitzaldeko igerilariak bikain aritu ziren txapelketan
- Zortzi domina eskuratu dituzte, urre eta brontzeko bina eta zilarrezko lau

AITOR AROTZENA

Berako Gure Txokoa elkarteko water-polo taldeak emaitza bikaina eskuratu zuen Nafarroako XIII. Kirol Jokoetan, azpitxapeldun izatea lortu baitzuen irailaren 9an Iruñeko Gelbentzu igerilekuan jokaturako txapelketan. Lehendabiziko fasean, lehen partidua bina berdindu egin zuen Larrainaren aurka, baina bertze biak irabazi egin zituen (3-1 Lagunaken kontra eta 5-0 Ebroko Mankomunitatearen kontra). Bere multzoan bigarrena izan ondotik, finalerdian bertze multzoko txapeldunaren kontra jokatu zuen, Club Natación Pamplonaren kontra, eta ustekabean 4-2 irabaztea lortu zuten Gure Txokoakoek. Finalean, berriz ere Larrainaren kontra jokatzeko egokitu zitzaizkien, baina oraingoan 3-0 galdu zuten beratarrek. Halere, Aritz Perez entrenatzailea pozik ageri zen lortutako emaitzarekin. «Kontuan hartu behar da talde gehienek neguan ere entrenatzeko modua izaten dutela eta gu, aldiz, udan bakarrik aritzen gara. Ez genuen inola ere finalera ailegatzea espero». Ane Bergara, Jon de la Cruz, Xabi Alzuri, Ander Rodriguez, Unai Rodriguez, Isabel Etxebeste, Mikel Morcillo, Maitane Erdozain, Jokin Iantzi eta Gaizka Martikorenak osatu zuten Gure Txokoaren taldea.

Water-polo txapel-



Gure Txokoako taldea txapeldunorde suertatu da Nafarroako XIII. Kirol Jokoetako water-polo txapelketan.

keta baino astebete lehenago, irailaren 2an, Baztan-Bidasoa-Leitzaldeko selekzioak igeriketa txapelketan parte hartu zuen eta domina uzta ederra ekarri zuen Iruñetik: urrezko bi, zilarrezko lau eta brontzezko bat.

URREZKO ETA BRONTEZKO BINA DOMINA, ZILARREZKO LAU

Alebinetan, mutilen artean, 25 metrotan tximeleta erara bigarren izan zen Unai Rodriguez. 25 metrotan, baina cowl erara, Mikel Morcillo lehendabiziko postua lortu zuen. 50 metroan, cowl erara, Unai Rodriguezek lortu zuen urrezko domina. Azkenik, errelebo-ka egindako 4x25 metro estiloetan eta 4x25 metro libreetan zilarrezko bi domina lortu zuen alebin mailan

## Igeriketa selekzioa

Unai Rodriguez	Bera	Alebina
Mikel Morcillo	Bera	Alebina
Intz Iriarte	Bera	Alebina
Amaia de la Cruz	Bera	Alebina
Goretti Galañena	Leitza	Alebina
Goizeder Ariztimuño	Leitza	Alebina
Jokin Iantzi	Bera	Infantila
Isabel Etxebeste	Lesaka	Infantila
Eneritz Zabaleta	Leitza	Infantila
Maitane Gereño	Areso	Infantila
<b>Entrenatzaileak:</b> Aritz Perez (Bera) eta Eunat Lopez (Leitza)		

Mikel Morcillo, Unai Rodriguez, Amaia de la Cruz eta Intz Iriartek osatutako taldeak.

Infantiletan ere izan zen dominarik. Bakarka, Eneritz Zabaletak lortu zituen: 50 metroan, cowl erara, hirugarren izan zen eta 50 metroan, braza erara, bigarren. Taldeka, 4x50 estiloetan hirugarrenak izan ziren Eneritz Zabaleta, Maitane Gereño, Jokin Iantzi eta Isabel

Etxebeste. 4x50 metro libreetan, berriz, bosgarrenak izan ziren eskualdeko infantilak.

Uda honetan izandako gorabeherak kontuan hartuz, emaitza onak izan direla uste du Haritz Perezek: «Igeriketa Federazioak ez du herrietako txapelketak antolatze laguntzarik eman eta honela, Baztanen eta Lesakan, adibidez, jokatu gabe gelditu dira».



- ❖ Otadiako Santo Kristo pilota txapelketa Eskualdeko pilotariak aisa nagusitu dira Otadiako Santo Kristo afizionatuen pilota txapelketa famatuan. Helduetan, Juantxo Apezetxea goizuetarrak eta Uhart-Arakileko Navarrok 22 eta 8 irabazi zieten Azpiz eta Bengoetxeari. Gazte mailan, oraindik partidu errexagoa izan zuten Josu Baleztena eratsundarrak eta Toni Uhart amaiurtarrak, 22 eta 2 irabazi baitzieten Mazarriaran eta Pradori.
- ❖ Mixel Aginaga Narbarte kirolaria zortzigarren izan zen irailaren 9an Errioxan burututako Green Cup San Asensio mendi duatloi proban. Aginagak 2 ordu, 18 minutu eta 50 segundu behar izan zituen ibilbidearen 45 kilometroak osatzeko (10 lasterka, 30 mendi bizikletan eta 5 lasterka), Javier Garcia irabazleak baino 12 minutu eta 27 segundu gehiago. Mixellek adierazi zigunez, proba arras gogorra izan zen, eta atera ziren 110 kirolarietatik 33 bertzerik ez ziren ailegatu helmugara.

# Larretxea, Mindegia eta Etxeberria Euskal Herriko aizkolari txapelketaren finalera

- Olasagasti, Nazabal eta Peñagarikanok osatuko dute seikotea
- Urriaren 29an jokatu da azken saioa Arabako Oion herrian

TTIPI-TTAPA

Irailaren 17an Samaniegon jokatuak kanporaketa saioan ez zen ustegabe handirik izan eta Donato Larretxea, Joxemari Olasagasti, Mikel Mindegia, Floren Nazabal, Migel Mari Peñagarikano eta Felix Etxeberriak eskuratu zuten finalean aritzeko txartela. Finala urriaren 29an jokatu da Oionen, Araban.

Guzira hamar aizkolari aritu ziren finaleko sei lekuen bila. Lehenbiziko txandan, ustez aizkolari onenak lehiatu ziren: Larretxea, Olasagasti, Senosiain, Peñagarikano eta Mindegia. Sei enbor moztu behar zituzten eta Larretxea eta Olasagastiren arteko borroka gogorra izan zen. Azkenean, Donatok Igeldokoak baino segundu bat lehenago akautu zuen lana (16'41"). Mindegia izan zen hirugarren, irabazlearengatik 21 segundura eta Peñagarikano laugarren minutu eta 50



**Mindegia, Peñagarikano, Olasagasti, Etxeberria, Nazabal eta Larretxea, Euskal Herriko finalean lehiatuko diren sei aizkolariak.** Argazkia: Gara

segundura. Senosiainek 19 minutu eta 12 segundu behar izan zituen lana akitzeko eta denbora hori izan zuten erreferentziatzat bigarren txandako aizkola-

riek. Nazabalek aisa irabazi zuen txanda hau, 17 minutu eta 30 segundutan. Felix Etxeberria sunbildarrak eta Fausto Mugerza mutrikuarrak lehia gogorra izan zu-

ten Senosiainen denbora hobetzeko. Biek lortu zuten, baina Etxeberria izan zen azkarrago (18'51"), jokoan zegoen finaleko seigarren lekua bereganatuz.

## Rafael Untxalo eta Josetxo Telletxea arraioztarrak bigarren mailako arpana txapelketan laugarren

Irailaren 24an jokatu zen Uharte-Iruñan Nafarroako 2. Mailako Arpanlari Txapelketa eta Nafarroako Nesken Arpana Txapelketa. Larunbat honetan Igantzin jokatu beharreko 2. mailako aizkolari txapelketako kanporaketa ere jokatu zen.

Arpanlariak egin be-

harreko lana 45 ontzako enborrari 10 korte etzanda eta 4 zutik ematea zen. Lau bikotek hartu zuten parte eta lehenengo postuan Berriozarko Jose Manuel Golderazena eta Jose Luis Cano gelditu ziren (6'48"). Bigarrenean Etxauri Harana taldeko Xabi Oderiz eta Joxe

Olano (7'20"), hirugarren Etxarri Aranatzeko Mikel Azpiroz eta Mikel Auzmendi (7'34") eta laugarren Arraiozko Rafael Untxalo eta Josetxo Telletxea (10'07").

Nafarroako Nesken arpana Txapelketan hiru bikote zeuden eta egin beharreko lana 45 ontzako enborrari 10 kor-

te etzanda ematea zen. Bertan irabazle Berriozarko Laura eta Kristina Tabar izan ziren (8'03"). Bigarren Ultzama-Odietako Imelda Larraia eta Amaia Berasain gelditu ziren (8'36") eta hirugarren Etxauriko Idoia Moneo eta Begoña Armendariz (9'25").



❖ **Beti Gazte** areto-futbol talderik gabe Lesakako Beti Gaztek ez du areto-futbol talderik aterako aurren, ez baitu jokalaria aski Gipuzkoako 2. mailan aritzeko. Jokalariak lortzeko egindako deialdiak ez du arrakastarik izan eta, gisa honetara, ohorezko mailako Gure Txokoa izanen da eskualdeko ordezkari bakarra kirol honetan. Duela bi urte, Goizuetako Umore Ona eta Beti Gazte ere ari ziren areto-futbolean beratarrekin batera.

❖ **Txaruta pilotari** taldea Nafarroako Herriarteko txapelketa irabazi ondotik Euskal Herrikoaren finala jokatu zuen joan den ortziralean Baztan eta Malerrekako pilotari gazteak biltzen dituen elkarteak. Bertze herrialdeetako txapeldunen kontra aritu dira. Finalerdian Hernani kanporatu zuten eta Bergarako finalean Arabako Donemiliagaren (San Millan) kontra jokatu zuten. Hurrengo alean emanen dugu emaitzaren berri, baina ez du nolana hiko denboraldia egin Txaruta taldeak.

## AGENDA EGUNEZ EGUN

### BESTAK

#### GARTZAIN

► Urriaren 11tik  
15era  
20. orrialdean informa-  
zio gehiago.

### HITZALDIAK

#### IRUN

► Urriaren 6an  
"Bidelapurrak Euskal  
Herrian", Mikel  
Alberdiren eskutik.  
Arratseko 8etan,  
Landetxako Auzo  
Elkartean.

#### BERA

► Urriaren 6an  
"Gure haurrak euskara  
berrian heldu direne-  
an", Ane Zuloaga eta  
Oihana Irazustabarre-  
na irakasleen eskutik.  
Iamotenean, arratsalde-  
ko 7,30etan.

### IKASTAROAK

#### GOIZUETA

► Grafitiak, sexolo-  
gia, eskulanak...  
Ane Zinkunegik gimna-  
sia eta aerobic ikasta-  
roa emanen du.  
Gaztetxeak grafiti eta  
sexologia ikastaroak  
antolatu ditu, eta ber-  
tzalde, Arantxa loiarlek  
ingeles ikastaroa ema-  
nen du.

#### BERA

► Irakurketa eta  
idazkuntza tailerra  
Urriaren 7a baino le-  
hen apuntatu behar da  
948 630 871ean.  
Maripi Solbes da kude-  
atzailea.

### OSPAKIZUNAK

#### ETXALAR

► Usategietako  
igandea  
Urriaren 15ean egingen  
da.

### TELEBISTAKO TXOKOA



## Denboraldi berria hasi du

### TTIPI-TTAPA TELEBISTAK

Jakinen duzue, joan den astean hasi zituen TTIPI-TTAPA TELEBISTAK denboraldi honetako emanaldiak, eta ohi-ko albistegiaz gain Igantziko besten berri ere eman du dagoeneko. Oporraldien ondotik, ohi den bezala, berri-kuntza zenbait izanen dira programazioan, baita aurkez-leen artean aurpegi berriak ere.

Bertzalde, udazkenetan zineak protagonismo berexia har-  
tu ohi du inguru honetan, dela Donostiako Zinemaldiaren-  
gatik, dela Bidasoako Filme Laburren Lehiaketarengatik.  
Azken zinemaldi honetan parte hartu duten laburmetrai  
guziak TTIPI-TTAPA TE-  
LEBISTAN izanen ditu-  
zue ikusgai, Nerea  
Alzurik aurkeztuko  
duen saio berexiaren  
barrenean.  
Igantziko bestetan egin  
den Artzain Txakur  
Txapelketaren ingu-  
ruko saioa ere izanen  
duzue egunotan.



udazkena

### BASERRIA



#### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 3.500 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 169,5 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 110-115 pta./kiloa, bizirik.




#### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal  
Extra .....565  
1.koa .....540  
2.koa .....510
- **Urruxak:** Pta./kg. Kanal  
Extra .....580  
1.koa .....565  
2.koa .....530  
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze ttikiak**  
(15 egun ingurukoak):  
**Nabarrak:** urruxak 15.000-18.000 eta idixkoak 27.000-33.000 Pta.  
**Mestizoak:** urruxak 25.000-30.000 eta idixkoak 40.000-45.000 Pta.  
**Behi zaharrak:**  
Behi nabar gizona: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 420 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

### 👉 Liburuak



«Agur, Euzkadi»

JUAN LUIS ZABALA

SUSA

Lauaxeta idazlea, orain 60 urte faxistek atxilotu eta fusilatu zuten Gernikan. Juan Luis Zabala idazlearen liburu honetan berpiztu egiten da, ordea, fusilatu zuten tokitik hagitx gainera. Gerra aitzineko traje dotorea du soinean, gorbata eta betaurrekoak, eta ikusten duen lehendabiziko gauza Ertzantzaren kotxe bat da. Galderek segituan betetzen diote barrena: gerra irabazi ote genuen azke-

nean? Euzkadi aske izanen ote da orain? Xutik iraunen ote du Gernikako Arbolak bonbardaketaren ondotik? Ertzantzaren autoaren atzetik abiatzen da Lauaxeta galdera guzi horiei erantzuna bilatu nahian. Juan Luis Zabala idazle gipuzkoarrak Lauaxetaren inguruan dagoen dokumentazio eskasa bildu eta bere idurira moldatutako nortasun berria eman dio nobela honetan.



# Estresari aurre egitea

Gaur egungo kulturaren "mugi zaitez", "bukatu ezazu orain" eta "gauzak ongi egin" bezalako esaldiak errepikatu eta aditzen ohituak gaude.

Gertaera desberdinek eraginda sortu daiteke estresa: lanak, bikotearekin hausteak, erabaki garrantzitsuak hartu beharrak... horren aitzinean gure erantzuna desberdina izaten ahal da: ahalegin handiegia egitea (tentsioa sortzen du), aktibitatea handitzea (hiperaktibitatea) jarrera inhibizioa (blokeatzea) eta aldaketa emozionalak. Horrez gain, buruko minak bezalako ondorio fisikoak ere agertzen dira, itolarri tentsazioa, lo eza, tentsio muskularra, etab...

Guzi hau zerbaiten mehatxupean gaudela eta mehatxatzen gaituen horri aurre egiteko gaitasun nahikorik ez dugula pentsatzen dugunean gertatzen zaigu.

Hiru estres mota:

- Mehatxua oraindik gertatu ez denean ("lana ongi egiten ez badut eta kalera bo-



Eginbeharrak sailkatu eta erlatibizatu behar dira estresari aurre egiteko.

### Zerbaiten mehatxupean gaudela eta horri aurre egiteko gai ez garela pentsatzen dugunean sortzen da estresa.

tatzen banaute zer?").

- Zerbait galdu dugunean edo psikologikoki kaltetuak izan garenean (bikotearekin haserretu).

- Desafio baten aitzinean gaudenean (igoera bat lortzeko emaitza on baten beharra).

Zer egiten ahal dugu?

- **Sailkatu:** estresaren kausa nagusietako bat gauza aunitz aldiberean eta gainera ongi egin behar izatea da. Horregatik, lanak beren garrantzi objektiboaren arabera sailkatu behar ditugu, eta ongi sailkatu ditugunean, bakoitza

gauzatzeko behar den astia hartu behar dugu.

- **Erlatibizatu:** Estresaturik gaudenean ohikoa da "kognizio" izeneko pentsamendu automatikoak sortzea, gisa hone-takoak: "ezgauza hutsa naiz", "ez dut lortuko"... antsietatea handitu bertzerik ez dute egiten. Horregatik dena ongi eta abudo egitearen ondorioak egiazki horren larriak izanen diren baloratu behar da.

Hau da, egoeraren analisi zehatza egin behar da, "bai, baina..." bezalakoak baztertu, lortu direnak baloratu, helmuga errealistak finkatu, eta batez ere pentsatu eta erlajatzeko astia hartu ekin baino lehen, horrela ikusiko duzu nola hasiera batean aurre egiteko ezinezkoa zirudien egoera hori aldatzen den.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## MIKOLOGIA

### BERTIZ

► Urriaren 13tik 15era I. Mikologia Kongresua Bertizen. Informazio gehiago 17. orrialdean.

## KONTZERTUAK

### OIARTZUN

► Urriaren 6an Joxe Ripiau, Pagoa Garagardotegian, arratsko 21,30etan.

## OMENALDIAK

### ELIZONDO

► Urriaren 11n Arkupeak elkarteak Mariano Izeta elizondarra omenduko du.

## FERIAK

### BERA

► Lurraren Eguna Urriaren 29an egingen da. Parte hartzeko 948 631 307ra deitu behar dute artisauek.

## ERAKUSKETAK

### BORTZIRIAK

► Argazkilari afizionatuen erakusketa antolatu du Berako Kultur Batzordeak. Lanak azaroaren 15a baino lehen entregatu behar dira.

## GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfnora. deitu behar da

► Urriaren 2tik 8ra Lesaka, Sunbilla, Irurita eta Goizueta.

► Urriaren 9tik 15era Bera, Ituren, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

► Urriaren 16tik 22ra Etxalar, Narbarte, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

## DISKAK



«Arima beltza»

ARIMA BELTZA

TIOBIBO RECORDS

Nork erran zuen euskaraz kantatutako bluesik ez dagoela? Sei abestiko disko honek erakusten du baietz, egon badagoela. Talde elgoibartarra dugu Arima Beltza, eta Tiobibo records etxe ezezagunak atera du argitara beraien lehen lana. Funtsean blues disko bat baldin bada ere, bertze hurbileko estilo batzuei ere keinuak egiten dizkiete abesti batzuetan. Joseba Alonso, Aitor Badiola,

Iñigo Araujo, Lander Trinidad eta Jon Gurrutxagak osatzen dute boskotea. Telebistako programa batean ikusi genituen orain gutti, eta esperientziak ematen duen segurtasuna falta zaiela nabari zen. Dena den, talde bat ahaztea zaila egiten duten xehetasun tikiak ere ikusi ahal izan ziren, baterijoleak kantatzen duela, adibidez, bluesak eskatzen duen intentsitatearekin kantatu ere.

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

## ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

## GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

## LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

**zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...**

Hegoaldetik deitzeko  
Iparraldetik 00-34-

**948631188**



**...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

## ZERBITZUAK

- 201. Hargin/geltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

## LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

## IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

## MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

## ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

## DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

## HARREMANAK

- 801. Agurrak

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

**ADOS**

**- BERA. Bi pisu eta bi apartamentu salgai. Bizitzen jartzeko prest daude.**

☎ 948 451 841  
607 978 656

## BULDAIN

**Pisuak, bajeak, lur-eremuak etab. salgai.**

Informazioa Amazabal 37an,  
larunbatetan 10etatik 14ak arte.  
☎ 649 476 615 • 948 510 167  
goizetan deitu

## BULDAIN

**Amazabalen pisua salgai. 3 logela, bainua, sukaldia, komedorea eta trasteroa. 12.500.000 pta.**

☎ 649 476 615 • 948 510 167  
goizetan deitu

## BULDAIN

**Leitzan garajeak eta garaje plazak salgai Manuel Lasarte kalean.**

☎ 649 476 615 • 948 510 167  
goizetan deitu

**ELIZONDO.** Pisua salgai Paularenan. 1. solairuan, 80 m<sup>2</sup>koa. ☎ 948 580 131 edo 626 128 475.

**GOIZUETA.** Etxebizitza salgai, 30 m<sup>2</sup>ko sotoarekin eta 45 m<sup>2</sup>ko terrazarekin. ☎ 948 514 027 edo 514 002.

**BAZTAN.** Pisu ederra salgai kalefakzioarekin, trasteroa, 3 logela eta moblez-tatua. ☎ 629 322 998 (arratsaldetan).

## ETXEBIZITZAK

### 102 EROSI

**ADOS**

**- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.**

☎ 948 451 841  
607 978 656

## ETXEBIZITZAK

### 103 ERRENTAN EMAN

**DONOSTIA.** Pisua errentan emateko Amara auzoan, urritik aitzinera. ☎ 943 720 170 eta 679 954 549 (Mikel).

## ETXEBIZITZAK

### 104 ERRENTAN HARTU

**BAZTAN-MALERREKA.** Borda, pisua, baserria hartuko genuke errentan. Egoera onean. ☎ 655 740211.

## ETXEBIZITZAK

### 105 ETXE KONPARTITUAK

**BURLATA.** 2 edo 3 pertsona behar dira pisua osatzeko. Errenta merkea. ☎ 948 450 578 (Maite edo Ana).

**Kasu!** Euskalduna bazara eta Iruñean pisu bila bazabiltza edo zure pisuan lekurik baduzu, zatorz Karrikirira edo dei egiguzu. ☎ 948 222 589. Helbidea: Xabier karrika, 2. bis, Iruñea.

**Neska bat** behar da Donostian, Antigua auzoan pisua osatzeko. ☎ 948 637 228 (Maider).

Donostia Antiguoa auzoan pisua osatzeko **neska bat** behar da. ☎ 946 820 170.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 107 SALDU

**LESKA.** Labekoak gozotegia traspasatzen da. ☎ 948 637 256.

## LURRAK/ORUBEAK

### 112 SALDU

Alkaiagan 2.500 m<sup>2</sup>ko **lur-eremua** salgai. ☎ 948 630 412.

☎ 948 13 11 36

**LODITASUNA?**

96 pertsona behar ditugu pisu kontrolaren programa berri bat frogratzeko. Belarren bidez egingen da.



## BERAko UDALA AYUNTAMIENTO DE BERA

### U.U. 14.2.ko HIRIGINTZ HITZARMENA HASIERA BATEZ ONESTEA

2000ko abuztuaren 17an Udabatzak egindako osoko bilkuran, ondoan dagoen erabakia onetsi zuen:

- 1) Udalak sinatzeko JOSE M<sup>o</sup> IRAZOQUI IRIARTEK eta JOSE A. PAGOLA IGOAK aurkeztu duten U.C.14.2ko hirigintza aprobetxamenduaren %10 esleitzeko Hirigintza Hitzarmenaren zirraborra onestea.
- 2) Aipatutako Hirigintza Hitzarmena sinatzeko alkateari baimena ematea.
- 3) Behar den balorazio tekniko Hirigintza Hitzarmenari erantsia adieraztea.
- 4) Sinatu ondoren, hirigintza hitzarmen hau, Iragarki Taulan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta, gutxienez, Foru Komunitatean gehien zabaltzen den egunkarietatiko batean alde zuretik argitaratua, 15 eguneko epean jendaurrean jartzea.
- 4) Akordio hau interesatuei bidaltzea.

Bera, 2000.09.04  
Alkatea, J. Goia Etxeberria

## ZERBITZUAK

### 205 ZURGINAK

**arantza**  
ZurginDegia  
*Jose Miguel Errandonea*  
**Klase guztietako zurgin lanak**  
Osina auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

## LANA

### 301 ESKAINTZAK

**Sukaldaria** behar da eguerdiko zerbitzua egiteko. ☎ 666 079 141.

**Neska bat** behar du Beran haurrak zaintzeko. ☎ 656 71 38 38.

Ostatu batean lan egiteko **neska bat** behar da. ☎ 678 581 267.

## LANA

### 302 ESKARIAK

**Txatarra** biltzen dut, **garraio laburrak** egiten ditut. Baita ere baserri inguruak edo sotoak garbitu. ☎ 678 855 452 (Fermin).

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

**Volkswagen Polo** estreina-tu gabea, matrikulatua. Hiru ate. Haize egokitua, lagundutako direkzioa, itxiera zentralizatua. ☎ 943 613 749 edo 646 674 213.

**Opel Monterrey 3.1 LTD.**  
NA-AV. ☎ 948 305 128.

**Cota 310** motoa salgai. ☎  
649 574 950.

**Peugeot Streetfight** mo-  
toa salgai. 8 hilabetekoa. ☎  
948 510 558.

**Honda Transalp 600** mo-  
toa salgai. SS-AF. Ongi  
zaindua. ☎ 948 637 765.

**Bultaco 250** salgai. Egoera  
onean, matrikulatua eta IAT  
eguneratua. ☎ 948 627 537  
(Bixente).

## MOTORRA

502 TAILERRAK

**GANIX**  
Tailerrak  
Iturlandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA  
IBILGAILUEN MEKANIKA  
ETA ELEKTRIZITATEA  
FIAT Zerbitzua

**BOAN**  
TAILERRA  
CITROEN Banatzailea  
AUTO BERRIEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA  
☎ 948 63 06 23 • BERA

**MENDAUR MOTOR**  
☎ 948 450333 • DONEZTEBE  
Bigarren eskuko kotxeak:  
Astra GSI, Astra Sportif (9 hilabete),  
C-15 D, Panda 4x4,  
Kadett GSI, Golf TD  
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

## ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Aintzinarako bost edo sei  
hilabeteko blonda arraza-  
ko **migatuak** salgai. ☎ 666  
914 359.

**Behi suiza** ernaria salgai.  
☎ 948 637 965.

**Bi zakurkume** eme setter  
ingles arrazakoak (oilago-  
rretakoak) salgai. ☎ 948 637  
865.

**Setter ingeles** arrazako za-  
kurkumeak salgai. Interes-  
garria. ☎ 948 627 516.

# Abisua

## BAZTAN - BORTZIRIAK - MALERREKAKO MODA PROFESIONALENTZAT:

- ✓ **Arropa dendak:** emakume, gizon, haur, kirol...
- ✓ **Zapata dendak**
- ✓ **Osagarriak:** bitxiak, boltsoak...
- ✓ **Optikak**
- ✓ **Ileapaindegiak**
- ✓ **Makilaje profesionalak**

**Negu honetan** eginen den **MODA DESFILEA** antolatzen ari gara. Zuk ere parte hartu nahi baldin baduzu, deitu urriaren 10a baino lehen telefono honetara

☎ 617 350 176

**Negu honetan erosi bertako komertzioetan**  
**gure herrietako ekonomiak eskertuko dizu!**



# URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeke, bidali sobrea zure helbidearekin.

## OHARRA:

Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira TTIPI-TTAPA TELEBISTAN eta aldizkarian agertuko. Argazkia itzultzeko sobra bat eta helbidea ere bidali.



Pedro Eltzaurdia eta Margarita Pikabea beratarrek urrezko ezleak eginen dituzte urriaren 13an. Zorionak familia guziaren partetik.



Eugenio Serrano Azpilikueta beratarrek urriaren 10ean 23 urte beteko ditu. Zorionak familia guziaren partetik.



Fatima eta Luisek urteak bete dituzte irailaren 29 eta 30ean. Zorionak familiaren partetik eta berexiki Maider eta Sheilaren partetik.



Iñigo Zelaieta beratarrek 13 urte beteko ditu irailaren 18an. Zorionak zure lagunen partetik eta berexiki P.D.ren partetik.



Maider Jabalera Juanena doneztebarrak 5 urte beteko ditu urriaren 6an. Zorionak aita eta amaren partetik.



Alaitz Arani-bar Iparragire arantzarrak urtea bete du irailaren 25ean. Zorionak Xabier, Benat, Jon eta Aintzaineren partetik.



Elena Zabala Ezkurra doneztebarrak 3 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat Emilio, aita, ama eta amatxeren partetik.



Itxaso Berrozpe Mitxelena lesakarrak 2 urte beteko ditu irailaren 29an. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Julen La Torre Goia beratarrek irailaren 30ean 9 urte bete ditu. Zorionak familia guziaren partetik. Kontuz zaldiarekin!



Mikel zigatarrak irailaren 13an bete ditu urteak. Aunitz urtez eta egun ona pasa eskolako lagunen partetik.



Josu zigatarrak irailaren 22an bete ditu urteak. Aunitz urtez eta egun ona pasa eskolako lagunen partetik.



Mattin Arbelaitz Heras zubietarrak 5 urte bete ditu irailaren 12an. Aunitz urtez eta muxu pila bat.



Joana Bengotxea doneztebarrak 3 urte beteko ditu irailaren 26an. Aunitz urtez guraso, anaia Xabi eta familia guziaren partetik.



Maria Telletxea Oiarzabal lesakarrak urtea beteko du urriaren 8an. Zorionak aita eta amaren partetik.



Maria Telletxea Oiarzabal lesakarrak urtea beteko du urriaren 8an. Zorionak osabaziteza eta amatxatxien partetik.



Aritz Petrirena Bengoetxea beratarrek 9 urte bete ditu irailaren 26an. Zorionak aita, ama eta Igorren partetik.



Julen Arozena Almandoz goizuetarrak 6 urte bete ditu urriaren 5ean. Zorionak pilotari, familiaren partetik. Aupa Argiñano!



Angel Matxiarena Arani-bar donostiarrak urriaren 5ean urte aunitz egiten ditu. Zorionak aita. Seme-alaba eta iloben partetik.



Ines Matxiarena Aldalur eta Maria Irigoyen Matxiarena beratarrek urteak beteko dituzte urriaren 7 eta 14an. Zorionak Donostiako sendiaren partetik.



Amaia Astiz Izeta elizondarrak urriaren 5ean 6 urte beteko ditu. Aunitz urtez aita, ama eta Antonen partetik. Muxu handi bat.



Xabier Santos Telletxea lezotarrak 19 urte egin ditu irailaren 28an. Zorionak Lezo, Hondarribia eta Berako familiaren partetik.



Ibon Aguilar Lazkanotegi beratarrek urtea beteko du urriaren 5ean. Zorionak aita, ama, Alaitz, Ainhoaren partetik. Aupa pottoko!



Fernando Etxegarai lesakarrak 8 urte bete ditu urriaren 5ean. Aunitz urtez aita, ama, Goretti eta Martinen partetik.



Ainhoa Gonzalez Castro arantzarrak urteak beteko ditu urriaren 9an. Zorionak aita, ahizpa Amaia eta Josetxo senarraren partetik.



Maitane eta Mikel Oteiza Gonzalez gazteluarrek urteak bete dituzte urriaren 3an. Zorionak Arantzako familiaren partetik. Bi muxu handi.



Eki Gereka Amunarrirek 5 urte bete ditu urriaren 5ean. Zorionak eta muxu handi bat aita, ama, Alix eta Maxiren partetik.



Dunia Abatal beratarrek 5 urte bete ditu irailaren 27an. Zorionak bere gurasoen partetik.



Julen Arozena Almandoz goizuetarrak 6 urte beteko ditu urriaren 5ean. Zorionak pilotari, eta muxu bat etxekoaren partetik.



Rosario Monako leizarrak urteak bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat Aurtizko familiaren partetik.



Iñaki Irazoki Ezeiza elizondarrak 3 urte beteko ditu urriaren 13an. Zorionak eta muxu bat aita, ama eta Jonen partetik.



Mikel eta Maitane arantzarrak 2 urte bete dituzte urriaren 3an. Zorionak Marixus eta Felix osabaren partetik.

**Norbait zoriontzeko, bidali bere argazkia, testua eta 35 pezetako 15 seilu TTIPI-TTAPAKO helbidera: Ttipi-ttapa aldizkaria Herriko Etxeko Plaza, 1 31780 BERA**

**Zerri gazte bat** erosiko nuke gizontzako. ☎ 943 632 275 (eguerdi partean).

**Pertsu katu eme bat** behar da gurutzatzeko. ☎ 948 631 011.

### DENETARIK

#### 701 GALDU-AURKITUAK

Arantza Rock jaialdian **bi domina** galdu dira. Bietan "Xabier" jartzen du. ☎ 948 631 188.

**Giltza batzuk** galdu dira Lesakan. ☎ 948 637 264.

### DENETARIK

#### 702 SALEROSKETAK

Egurrezko **sukalde kalfaktorea** salgai. Arras egoera onean dago. ☎ 609 744 757.

### HARREMANAK

#### 801 AGURRAK

**Narbarteko** Iñaki, Asier eta Garikoitzi: oso mutil kaxondo eta jatorrak zarete. Ez dugu ahaztuko zuekin egon izana. Berako 3 neska. Aaaa, zor diguzue 3 po-

te. Ja, ja, ja. Laster arte.

**Goizuetako** Julen Arotzenari, zorionak Lesakako familiaren partetik. Pilotaridua jokatzeko tokia hartu eskolako frontoian. Sei urterekin Mikel Goñiri ere egurra emanen diozu. Muxu haundi bat



**MUEBLES  
A METS**


**Sarrera BERAtik da**

*Alkaiagako industrialdean  
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4*

**31789 LESAKA**

*Tfnoa. 948 630 537*

*Fax. 948 631 443*



**1. urtemugako oferta  
%40ko deskontuak  
koltxoietan**

**Larunbat arratsaldetan irekia**